




# GIZARTE POLITIKAK POLITICAS SOCIALES



## 2021eko Memoria





# **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA**

## **DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES**

**2021eko**

**MEMORIA**



## AURKEZPENA

Memoria honetan 2021an zehar egindako jarduera garrantzitsuenak jaso ditugu, kudeatutako programa eta prestazioak kontsultatzeko aukera eman eta Gizarte Politikako Departamentuak egindako jardueri buruzko ikuspegi orokorra eta zeharkakoa eskaintzeko.

2021ean, COVID-19ak eragindako pandemiaren aurrerapenarekin, beharrak aldatu egin dira. Osasun-krisi horrek mahai gainean jarri du etxeko arreta indartzearen garrantzia, eta, horregatik, Ordiziako eta Eibarko erreferentzia-zentroek ere arreta eman diete beren etxeetan bizi diren pertsoneri.

Guztira, 2021ean, **673** erabiltzaile positibo izan ziren COVID-19aren ondorioz eta **58** pertsona hil ziren, horietatik 43 adineko pertsonentzako egoitzetan, urtean zehar adineko pertsonentzako egoitzetan artatutako pertsonen % 0,8, aurreko urteko %5,5aren aldean.

Pandemiaren intzidentzia arintzeko, egoitzak sektorizatu egin dira, eta isolamendu-unitateak sortu dira; txertaketa-jarraibideak osatu dira, detekzio-protokoloak indartu dira, bai eta zentroetako ikuskapena ere.

COVID-19 pandemiak Euskadiko adinekoentzako egoitza-zentroetan duen eraginari buruzko 2021eko azaroan Arartekoak egindako azterlanaren arabera, Gipuzkoako egoitzetan kutsadura-arriskua txikiagoa izan zen Bizkaian eta Araban baino, besteak beste, zentroen egiturazko ezaugarriengatik eta hartutako prebentzio-

## PRESENTACIÓN

La Memoria que presentamos recoge las actividades más relevantes realizadas durante 2021, con el objetivo de ofrecer una herramienta que permita consultar los distintos servicios y prestaciones gestionados, así como disponer de una perspectiva global y transversal sobre el conjunto de actuaciones del Departamento de Políticas Sociales.

En 2021, con el avance de la pandemia provocada por la COVID-19 las necesidades han cambiado. Esta crisis sanitaria ha puesto sobre la mesa la importancia de reforzar la atención domiciliaria y por ello los centros de referencia de Ordizia y Eibar han atendido también a las personas que viven en sus domicilios.

En total, en 2021, hubo **673** personas usuarias positivas por COVID-19 y fallecieron **58** personas, 43 de ellas en residencias para personas mayores, un 0,8% de las personas atendidas a lo largo del año en las residencias para personas mayores, frente al 5,5% del año anterior.

Para paliar la incidencia de la pandemia se han sectorizado las residencias, creándose unidades de aislamiento; se han completado las pautas de vacunación, se han intensificado los protocolos de detección y también la inspección en los centros.

El estudio del Ararteko de noviembre de 2021 sobre el impacto de la pandemia del COVID-19 en los centros residenciales para personas mayores en Euskadi determina que el riesgo de contagio en las residencias de Gipuzkoa fue menor que en Bizkaia y Álava, entre otras razones por las características estructurales de los centros y las medidas de prevención

neurriengatik.

Protokoloa malgutu egiten da erabiltzaileei txertoa jarri eta egoera epidemiologikoa hobetu ondoren, eta irteerak eta bisitak berreskuratu egiten dira.

2021ean Eibar, Arrasate eta Ordiziako COVID zentroetara **512** pertsona bideratu dira bai GFaren egoitza-baliabideen saretik, bai etxebizitza komunitarioetatik.

Langileei dagokienez, ez da heriotzarik izan.

Bestalde, 2020-2030 aldirako Gipuzkoa Agenda aurkeztu da, plan estrategiko berri eta partekatu gisa, gizarte pospandemikoan eratzen diren agertokiak marrazteko.

2020-2030 Agendaren helburua da lurralde batean gizarte-politika partekatuak sortzea, arreta eta zaintzarako eredu berri bat eratzeko gai izango direnak.

Zahartzearen erronkari aurre egitea beharrezkotzat jotzen dugu. Gipuzkoan, 2000. urtean, 85 urtetik gorako 12.058 pertsona zeuden, eta 2021ean, **28.477** ( % 136ko igoera).

Hori dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zahartzearen kudeaketaren politika estrategikoetako bat egin du, bizitzaren azken etapan pertsonen nahiei modu integral eta pertsonalizatuan erantzutea ahalbidetuko duen ekosistema bat ezartzeko helburuarekin.

Zahartzearen erronkari aurre egiteko, **Zaintza HerriLab** zainketa-estrategiaren oinarriak ezarri dira. Estrategia horren helburua da

adoptadas.

La flexibilización del protocolo llega tras la vacunación de los usuarios y la mejora de la situación epidemiológica y se recuperan las salidas y visitas.

Durante 2021 han sido derivadas a los centros COVID de Eibar, Arrasate y Ordizia, **512** personas, tanto desde la red de recursos residenciales de la DFG como de domicilios comunitarios.

En cuanto al personal, no ha habido ningún fallecimiento.

Por otro lado, se ha presentado la Agenda Gipuzkoa 2020-2030, como un nuevo plan estratégico coparticipado y compartido que dibuja los escenarios que se configuran en la sociedad pospandemia.

La Agenda 2020-2030 busca dibujar un territorio con unas políticas sociales compartidas, capaces de configurar un nuevo modelo de atención y cuidados.

Consideramos necesario afrontar el reto del envejecimiento. En Gipuzkoa en el año 2000 había 12.058 personas mayores de 85 años y en 2021 son **28.477** (incremento de 136%).

Es por ello que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha hecho del envejecimiento una de las políticas estratégicas de su gestión, con el objetivo de implementar un ecosistema que permita responder a los deseos de las personas en la etapa final de su vida de una forma “integral y personalizada”.

Para afrontar el reto del envejecimiento, se han fijado las bases de la estrategia de cuidados **Zaintza HerriLab** que tiene como

mendekotasuna eta hauskortasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta pertsona horiei zerbitzuak eta iraupen luzeko zainketak erraztea beren etxean bertan.

Gizarte Politikako Departamentuaren 2021eko aurrekontua **437,9 milioi eurokoa (aurrekontuan jasotakoa baino 17,2 milioi gehiago)** izan da, hots, Gipuzkoako Foru Aldundiaren (983 milioi euro) aurrekontu osoaren **%45a**.

Gizarte politiken gastu publikoa etengabe igo da azken hamarkadan, hainbat faktorek eraginda, besteak beste, 65 urtetik gorako herritarren pisu erlatiboa igotzea, buruko gaixotasunen zabalkundea, edo gizarte bazterketaren eta babesgabetasun egoeren arriskua areagotzea.

Hala, 2021ean, biztanle bakoitzeko gastua 34 euro igo da aurreko urtearen aldean, biztanle bakoitzeko **600 eurora** iritsi arte, egungo zerbitzuen eta prestazioen **sistema indartzeko** helburuarekin, Gizarte Zerbitzuen Legearen unibertsaltasun aurreikuspenetan aurrera egiteko ezinbesteko estrategia baita.

Ondoren, 2021ean egindako jarduketa garrantzitsuenak aipatu nahi dizkizuet, legealdi honetarako ezarritako helburuen esparruan.

finalidad mejorar la calidad de vida y facilitar los servicios y los cuidados de larga duración a las personas en situación de dependencia y fragilidad en su propio domicilio.

El presupuesto del Departamento de Política Social en 2021 fue de **437,9 millones de euros (17,2 millones más que lo presupuestado)**, que supone el **45%** del presupuesto total de la DFG (983 M€).

El gasto público en políticas sociales ha aumentado de forma ininterrumpida en la última década, fundamentado por diversos factores, tales como el crecimiento del peso relativo de la población mayor de 65 años, la cada vez mayor incidencia de las enfermedades mentales o el aumento del riesgo de exclusión social y de las situaciones de desprotección.

Así, en 2021, el gasto por habitante ha subido 34 euros respecto al año anterior, hasta alcanzar los **600 euros** por habitante, con la finalidad de **reforzar el sistema** actual de servicios y prestaciones, como una estrategia fundamental para avanzar en el cumplimiento de las previsiones de universalidad de la Ley de servicios sociales.

A continuación quiero destacar las principales actuaciones realizadas en 2021, en el marco de los objetivos planteados para toda esta legislatura:

## 1-ADINEKOENTZAKO ARRETA

### 1.1.- EGOITZETAKO ETA EGUNEKO ZENTROETAKO PLAZA BERRIAK

COVID-19 pandemiari aurre egiteko, adinekoen egoitzen edukiera murriztu egin da, 400 plaza libre utzi behar izan baitira guztira, positiboen kasuan isolamenduak bermatzeko.

Erabili ez diren plaza horiek, ordea, itunduta daude oraindik, eta horri esker erabiltzaileen arretarako ratioak % 9,2 handitu dira.

**65 plaza** eskaini dira COVID-19 erreferentzia-zentroetan, Eibar Torrekuan (48 plaza) eta Arrasateko San Juan de Dios Ospitalean (17 plaza).

Gaur egun, Gipuzkoan, adinekoentzako **65** egoitza daude: guztira **5.319** plaza eskaintzen dituzte, eta horietatik % 87a Foru Aldundiaren sare publikokoa da.

Nabarmentzekoa da Adinberri programa estrategikoak **13 proiektu berritzaile** finantzatu dituela Pasaia instalazioan **zahartzeari aurre egiteko**. Programa horrek 750.000 euroko zuzkidura izan du.

Gipuzkoako egoitza-zentroei buruzko txosten bat aurkeztu dugu, Gipuzkoako adinekoentzako egoitza-zentroen egungo egoerari buruzko analisi bat eskaintzen duena. Txostenak Covid-19 pandemiaren eragina, egoiliarren bizi-kalitatea, berrikuntza-aukerak eta egoitzen etorkizuna aztertzen ditu.

## 1-ATENCIÓN PARA PERSONAS MAYORES

### 1.1.- NUEVAS PLAZAS EN CENTROS RESIDENCIALES Y DIURNOS

Para hacer frente a la pandemia COVID-19, la capacidad de las residencias de mayores se ha visto mermada ya que se han tenido que dejar 400 plazas libres en total para garantizar los aislamientos en caso de un positivo.

Esas plazas sin utilizar, sin embargo, han seguido estando concertadas, lo que ha permitido aumentar un 9,2% los ratios de atención a los usuarios.

Se han ofertado **65 plazas** en los centros de referencia de COVID-19 en Eibar Torrekua (48 plazas) y en el Hospital de San Juan de Dios de Arrasate (17 plazas).

En la actualidad Gipuzkoa dispone de **65** centros residenciales para personas mayores que ofertan **5.319** plazas, de las cuales el 87% forman parte de la red pública foral.

Hay que destacar que el programa estratégico de Adinberri ha financiado **13 proyectos innovadores para afrontar el envejecimiento** en la instalación de Pasaia por un valor de 750.000 euros.

Hemos presentado un informe sobre los centros residenciales de Gipuzkoa en el que se ofrece un análisis sobre la situación actual de los centros residenciales para personas mayores en Gipuzkoa. El informe aborda el impacto de la pandemia de la Covid-19, la calidad de vida de las personas residentes, las oportunidades de innovación y el futuro de las residencias.



Txosten hau 2021eko ekainetik irailera bitartean egindako azterlan baten ondorioa da, Gipuzkoako egoitza-zentroetako eragile nagusien ikuspegia integratuz: egoiliarrak, senideak, profesionalak eta zentroetako kudeatzaileak. Azterlanean 2.000 pertsonak parte hartu zuten (247 egoiliar, 660 senide eta 1.119 profesional).

Biztanleriaren zahartzearekin lotutako eragile guztien artean (instituzionalak, sozialak eta ekonomikoak), sare eta ekosistema bat ehuntzen ari gara, gizartearen erronka horri modu positiboan erantzuteko eta, gainera, ekonomia berri bat sortzeko.

### **1.2.-KABIAK UDAL EGOITZEN INTEGRAZIO PROZESUAREKIN AMAITU DU**

2014an udal-titulartasunekoak ziren adinekoen 16 zentroak Kabiak kudeatzen ditu jada.

Azaroaren 1etik aurrera, Kabiak Hernaniko Santa Maria Magdalena eguneko zentroaren eta egoitzaren kudeaketa hartu zuen bere gain.

Kabiak **1.417** plaza kudeatzen zituen abenduaren 31n.

### **1.3.- MENDEKOTASUNAREN ARRETA PERTSONAREN OHIKO INGURUNEAN ETA FAMILIA INGURUNEAN**

24/2017 Foru Dekretua, abenduaren 12koa,

Este informe es la conclusión de un estudio que se desarrolló entre los meses de junio a septiembre de 2021, integrando la perspectiva de los principales actores de los centros residenciales de Gipuzkoa: personas residentes, familiares, personas profesionales y gestoras de centros. En el estudio participaron de 2.000 personas (247 residentes, 660 familiares y 1.119 profesionales).

Entre todos los agentes relacionados con el envejecimiento de la población (institucionales, sociales y económicos) estamos tejiendo una red y un ecosistema que lo que pretende es atender a ese reto de la sociedad de un modo positivo y, además, generando una nueva economía.

### **1.2- KABIA CULMINA EL PROCESO DE INTEGRACION DE LAS RESIDENCIAS MUNICIPALES**

Los 16 centros de mayores que en 2014 eran de titularidad municipal ya están gestionados por Kabia.

A partir del 1 de noviembre Kabia asumió la gestión del centro de día y de la residencia Santa María Magdalena de Hernani.

Las plazas gestionadas por Kabia a 31 de diciembre son **1.417**.

### **1.3.- ATENCIÓN A LA DEPENDENCIA EN EL ENTORNO PROPIO Y FAMILIAR**

En el tercer año de implantación del Decreto

abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta zainketa sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituen abian jarri den hirugarren urtean, mendekotasun prestazioetan egindako gastua **60.970.767,88** eurokoa koa izan zen.

Gainera, etxeetan mendeko pertsonen ematen zaien arreta beraien beharretara egokitzen dela ebaluatzen duen aldikako UDAL jarraipenean, **4.201** jarraipen egin dira eta **313.370,42** euroko gastua izan zen.

## 2. -DESGAITASUNA

Nabarmenezkoa da Azpeitian Olatzondo zentroa ireki dela, autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonentzat.

Zentroak 14 plaza ditu bi etxebizitza komunitarioran, eta beste 14 eguneko arretarako eta Urola Erdian autismoa duten pertsonen eta haien familiei erantzuteko sortu da.

Zentroa Loiolabiden dago eta Gautenak kudeatzen du.

Europako funtsak 2 milioi euro jarri ditu Pagoetako (Urretxu) Aspace proiekturako, laguntza zabala eta orokorra behar duten dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintza eta arreta indibidualizatua eta integrala berritzeko.

Goyeneche Fundazioarekin 11 plaza hitzartu ditugu Pasaia Garagune berrian.

Foral 24/2017, de 12 de diciembre, por el que se regulan las prestaciones económicas de la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia, el gasto en prestaciones de dependencia ascendió a **60.970.767,88** euros.

Además, en el seguimiento municipal periódico que permite evaluar que la atención que se presta en los domicilios a las personas dependientes es la adecuada a sus necesidades, se han realizado **4.201** seguimientos con un coste de **313.370,42** euros.

## 2.- DISCAPACIDAD

Cabe destacar la apertura del centro Olatzondo, en Azpeitia para personas con trastornos del espectro autista.

El centro cuenta con 14 plazas en dos viviendas comunitarias y otras 14 de atención diurna, para dar respuesta a las personas con autismo y sus familias de la comarca de Urola Erdia.

El centro, ubicado en Loiolabide, está gestionado por Gautena.

Se han dotado 2 millones de fondos europeos para el proyecto de Aspace en Pagoeta (Urretxu) que está dirigido a innovar en los cuidados y atención individualizada e integral a personas con diversidad funcional con necesidades de apoyo extenso y generalizado.

Hemos concertado con Fundación Goyeneche 11 plazas en el nuevo Garagune en Pasaia.

### Tutoretzaren erregulazio berria:

Zerbitzu horri dagokionez, berrikuntzarik nabarmenena ekainaren 2ko 8/2021 Lege berria indarrean sartzea izan da. Lege horren bidez, legeria zibila eta prozesala aldatzen da, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko.

Lege horrek aldaketa garrantzitsua ekarri du, bai funtsari dagokionez, bai formari dagokionez, orain arte erabakiak hartzeko garaian ordezkapena nagusi izan den sistema batean, esku-hartzea pertsonaren nahiak eta gaitasunak errespetatzean eta erabakiak hartzeko beharrezkoak diren laguntzak ezartzean oinarritzen duen beste sistema batekin, besteak beste, ezgaitasunaren edo gaitasunaren aldaketaren kontzeptua eta tutoretzaren figura ezabatuta.

### **3. – OSASUN MENTALA**

**Zubietxe** zentroa jarri da martxan, **12** plazakoa, desgaitasun intelektuala eta/edo buru-nahasmendu larria eta jokabide-nahaste arinak dituzten erabiltzaileentzat. Zentro hori gazteei zuzenduta dago eta Aita Menni ospitale-anaiek kudeatzen dute.

Haur eta gazteen psikiatria-taldeek eta haurrak babesteko zerbitzuak artatutako kasuen inguruan koordinazio soziosanitarioa hobetzeko lanean ari gara, pertsona horiek helduaroan baliabide sanitarioetatik nahiz soziosanitarioetatik eta gizarte-baliabideetatik artatzera igarotzeko bideari dagokionez.

Laguntza psikosozial komunitarioko programan

### Nueva regulación de la tutela:

La novedad más destacable en relación a este servicio ha sido la entrada en vigor de la nueva Ley 8/2021, de 2 de junio, por la que se reforma la legislación civil y procesal para el apoyo a las personas con discapacidad en el ejercicio de su capacidad jurídica.

Dicha Ley ha supuesto un cambio importante, tanto de fondo como de forma, en un sistema en el que hasta el momento ha predominado la sustitución en la toma de decisiones, por otro que fundamenta la intervención en el respeto a los deseos preferencias y capacidades de la persona y la implementación de los apoyos necesarios para tomar sus propias decisiones, eliminado en entre otros el concepto de incapacitación o modificación de la capacidad y la figura de la tutela.

### **3.- SALUD MENTAL**

Se ha puesto en marcha el centro **Zubietxe**, con **12** plazas, dirigido a personas usuarias con discapacidad intelectual y/o trastorno mental severo y trastornos leves de conducta. Este centro está orientado a personas jóvenes y es gestionado por las Hermanas Hospitalarias Aita Menni.

Estamos trabajando en mejorar la coordinación Sociosanitaria en relación a los casos atendidos desde los equipos de psiquiatría infantojuvenil y el servicio de protección a la infancia en su tránsito a la atención desde recursos tanto sanitarios como sociosanitarios y sociales en edad adulta.

En el programa de apoyo psicosocial

**100** kasu artatu dira. Pandemiaren ondorioz, saioak ezin izan dira aurrez aurrekoak izan pandemiaren hasieratik ekainera arte, eta jarraipena telefonoz egin da.

comunitario se han atendido **100** casos. Debido a la pandemia, desde el inicio hasta el mes de junio las sesiones no han podido ser presenciales y el seguimiento ha sido telefónico.

#### **4.- ESPARRU SOZIOSANITARIOA**

Autonomia-erkidegoan, Osasun Sailarekin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin elkarlanean aritu gara, eta haiekin batera parte hartu dugu, bai eta Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoekin ere, "Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024" garatzen. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2021. urtean onartu zuen estrategia hori.

Lurralde Kontseilu soziosanitarioa aktibo mantendu da eta erakunde sanitario integratuetako batzorde soziosanitarioen jarduera murriztu da.

Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin koordinazio soziosanitarioa garatzen jarraitu dugu, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan.

#### **5.- ETXEKO LAGUNTZA**

Osasun-krisiak agerian utzi duen alderdietako bat etxeke arreta indartzeko beharra izan da.

#### **4.- COORDINACIÓN SOCIOSANITARIA**

A nivel Autonómico hemos colaborado y participado con el Departamento de Salud y Osakidetza Servicio Vasco de Salud, así como los Territorios Históricos de Bizkaia y Araba en el desarrollo de la "Estrategia de Atención Sociosanitaria de Euskadi 2021-2024", estrategia que ha sido aprobada por el Consejo Vasco de Atención Sociosanitaria durante el año 2021.

Se han mantenido activo el Consejo Territorial Sociosanitario y ha disminuido la actividad de las Comisiones Sociosanitarias de las Organizaciones Sanitarias integradas.

Hemos seguido trabajando en el desarrollo de la coordinación Sociosanitaria con el departamento de Salud y con Osakidetza tanto a nivel Territorial como a nivel Autonómico.

#### **5.- APOYO EN EL DOMICILIO**

Uno de los aspectos que ha manifestado la crisis sanitaria ha sido la necesidad de reforzar la atención domiciliaria.

Horregatik, zaintzen tokiko ekosistemak bultzatzen ari dira, adinekoei arreta pertsonalizatuagoa eskaintzeko, Adinberri estrategiaren bidez zein programa esperimentalen bidez.

Adinberri Fundazioaren Berrikuntzako Agenda Estrategikoaren erronketako bat etxean arreta integrala emateko eredu berria sortzea da.

Estrategiaren helburu nagusia da zerbitzuetan oinarritutako zaintza-eredutik pertsonetan oinarritutako zaintza-eredura igarotzea bultzatzea, eta, horrela, lurraldeko gizarte-politiketarako esparru berri bat sortzea, zaintzako tokiko ekosistemak sortzeko prozesua eta etxeko arreta bizkortzeko gai izan daitezen, besteak beste.

Pasaia HerriLab strategiaren esparruan, urrian arreta-ibilbideak eta zainketak diseinatzeari buruzko tailerra egin zen, nagusiki kasu konplexuetan ardaztuta (poli-gaixotasunak dituzten adineko pertsonak, horietako asko kronikoak eta gizarte-hauskortasuneko egoeran daudenak). Tailer horretan 21 pertsonak hartu zuten parte.

Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, azaroan mintegi bat egin zen ingurunean bertan emandako arretaren etorkizunari buruz, **38** pertsonak parte hartu zutelarik.

2021ean etxez-etxeko laguntza zerbitzuan mendekotasun egoeran dauden 3.889 pertsona artatu dira eta autonomia duten

Por ello, se están impulsando ecosistemas locales de cuidados para ofrecer una atención más personalizada a las personas mayores tanto a través de la estrategia Adinberri como a través de programas experimentales.

Uno de los retos de la Agenda Estratégica de Innovación de la Fundación Adinberri, es la creación del nuevo modelo de atención integral en el domicilio.

El objetivo principal de la estrategia es impulsar la transición de un modelo de cuidados basado en los servicios a un modelo de cuidados basado en las personas, generando así un nuevo marco para las políticas sociales del territorio, que sean capaces de acelerar el proceso de generación de ecosistemas locales de cuidados, y la atención en el domicilio, entre otras prioridades.

En el marco de la estrategia Pasaia HerriLab en octubre se realizó el taller sobre Diseño de Itinerarios de Atención y Cuidados focalizados principalmente en los casos complejos (aquellas personas mayores con poli-enfermedades, muchas de ellas crónicas y que se encuentran en situación de fragilidad social). En este taller tomaron parte **21** personas.

En colaboración con la universidad de Deusto en noviembre se realizó un seminario sobre el futuro de la atención en el propio entorno en el que tomaron parte **38** personas.

En 2021 se ha atendido en el Servicio de Ayuda a Domicilio a 3.889 personas en situación de dependencia y a 1.165 personas

1.165 pertsona. **4.872** dira arreta jaso duten pertsona desberdinak (izan ere, urtean zehar hainbat pertsona pasatu dira modalitate batetik bestera).

Bestalde, **2.844** pertsona izan dira laguntza teknikoen onuradunak eta guztira **7.826** laguntza eman dira. Zerbitzu hau mendekotasuna eta desgaitasuna etxean artatzeko oinarrietako bat da.

**Sendian** programan **315** pertsona ezberdin artatu dira: 92 asteburuetakoko egonaldietan, 287 banakako laguntza psikologikoko saioetan eta 45 laguntza taldeetan.

Atzegiren hitzarmenaren bidez **bizimodu independentea** babesteko zerbitzuan, 27 pertsona artatu dira eta Departamentuak kudeatzen duen laguntza programan, 50 pertsona .

## 6.-INKLUSIOA

Gizarteratzearen eremuan, prozesuen araberako kudeaketa-eredua ezartzen jarraitu da, hiru prozesu nagusitan oinarrituta: prozesu estrategikoa, banakako balorazio-, arreta- eta jarraipen-prozesua, zentroak eta zerbitzuak kudeatzeko prozesua eta barne-kudeaketako prozesua.

Laneko eredu operatiboa definitu da, banakako balorazio-, arreta- eta jarraipen-prozesuaren prozedura ezarri da, eta kasuen erreferentzialtasunean eta kudeaketan oinarritutako metodologia ezarri da, zerbitzuen erabiltzaile guztiek zerbitzuan erreferente tekniko bat izan dezaten, zeina laguntza-plan pertsonalizatua egiteko eta zentroetan eta zerbitzuetan eskaini beharreko arretaren jarraipena egiteko arduraduna

autónomas, siendo **4.872** las personas diferentes atendidas (ya que a lo largo del año hay personas que han pasado de una modalidad a otra).

Por otro lado, **2.844** personas han sido beneficiarias de ayudas técnicas, habiéndose concedido un total de **7.826** ayudas. Este es un servicio que se mantiene como una de las bases para la atención de la dependencia y de la discapacidad en el ámbito domiciliario.

En el programa **Sendian** se han atendido **315** personas diferentes: 92 en estancias de fin de semana, 287 en sesiones de apoyo psicológico individual y 45 en grupos de apoyo.

En el servicio de apoyo a la **vida independiente** provisto mediante convenio con Atzegi, se ha atendido a 27 personas y en el programa de apoyo gestionado por el Departamento, a 50 personas.

## 6.- INCLUSIÓN

En el ámbito de la Inclusión, se ha seguido implantando el modelo de gestión por procesos basado en tres principales procesos como son el proceso estratégico, el proceso de valoración, atención y seguimiento individual, el proceso de gestión de centros y servicios y el proceso de gestión interna.

Se ha definido el modelo operativo de trabajo, se ha procedimentado el proceso de valoración, atención y seguimiento individual, y se ha implantado la metodología basada en la referencialidad y gestión de casos de manera que todas las personas usuarias de los servicios dispongan de una referente técnica en el servicio, que es la responsable de realizar el Plan de apoyos personalizado y de realizar el seguimiento de la atención a

izango dena.

Era berean, antolaketa-eredua eta zerbitzuen katalogoa definitu dira, eta, esparru horretan, harrera, arreta, jarraipena, ebaluazioa eta arretaren amaiera egiteko prozesua.

Aurrerapausoak eman ditugu **balorazio zerbitzua** Departamentuak berak egin dezan oinarritzko gizarte zerbitzuekin lankidetzan, eta zerbitzua ezarri zenetik **1.315** pertsona baloratu dira.

Erabiltzaileen egoera aztertu da mendetasunari, desgaitasunari, osasun mentalari, kontsumoei eta, berrikuntza gisa, bakardadeari dagokienez, eta **Hariak** estrategian ere parte hartu da (Adinberriko bakardadeari aurre egiteko estrategia).

Gizarte zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzat **enplegagarritasun** aukerak sortzeari dagokionez dagoeneko existitzen diren laguntza-programez gain programetan parte hartzen duten pertsonen enplegagarritasuna eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko lan egin da.

**Kohesio eta aktibazio inklusiboko proiektuak** sustatu eta bultzatzeari dagokionez, komunitatearen aktibazioarekin eta administrazio publikoa pertsonengana hurbiltzearekin lotutako proiektuekin jarraitu da.

**Haur eta nerabeen arloan**, Gazteon Sarelan programarekin lanean jarraitu da, zailtasun pertsonal, familiar eta sozialeko egoeran dauden gazteak helduarora igarotzeko prozesuak hobetzeko, gizartean eta lanean erabat integratzeko.

ofrecese en los centros y servicios.

Igualmente se ha definido el modelo organizativo y el catálogo de servicios, y en ese marco el proceso de acogida, atención, seguimiento, evaluación y finalización de la atención.

Se ha avanzado en la implantación del **servicio de valoración** desde el propio Departamento, en colaboración con los servicios sociales de base, llegándose a las **1.315** personas valoradas desde la implantación del servicio.

Se ha analizado el estado de las personas usuarias en cuanto a dependencia, discapacidad, salud mental, consumos y como novedad la soledad, habiéndose participado también en **Hariak**, estrategia frente a la soledad en Adinberri.

En relación a la generación de oportunidades **de empleabilidad** para personas en situación de vulnerabilidad social, además de los programas de apoyo ya existentes se ha trabajado para fomentar la empleabilidad e inclusión sociolaboral de las personas participantes en los diferentes programas.

En el ámbito de la promoción e impulso de **proyectos de cohesión y activación inclusiva** se ha continuado con los diferentes proyectos relacionados con la activación comunitaria y el acercamiento de la administración pública a las personas.

**En el campo de la infancia y adolescencia** se ha continuado el trabajo con el programa Gazteon Sarelan con el objetivo de mejorar los procesos de transición a la vida adulta de jóvenes en situaciones de dificultad personal, familiar y social para su plena integración socio laboral.

## **7.- INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK DIREN EMAKUMEEN ARRETA**

Indarkeriaren emakume biktimentzako arreta erakundearteko **Aurre Planari** jarraituz zabaldu da. Plan horrek ardatz ditu prebentzioa, prestakuntza, ikerketa, eta zeharkakotasuna.

Talde tekniko bat (AMVVM) sortu da zerbitzu bakoitzeko arduradunekin eta gure zerbitzuko lankideekin, eta arreta-eredua definitu da, eta eredu horren araberako arretaren, prozesuaren eta emaitzen adierazleak definitzen hasi da.

## **8.- BABESGABETASUN EGOERAN DAUDEN ADINGABEAK**

Ezin dugu ahaztu 2021ean oso baldintzatuta jarraitu dugula, maila guztietan, Covid-19aren pandemiaren ondorioz. Kutsatzeen, edukieramugen eta bileren aurrean prebentzioa zorrotz beharrak, olatuen inpaktuak eta egoitza-baliabideetan berrogeialdiak kudeatzeak erronka handia ekarri du, eta horrek gure funtzionatzeko modua baldintzatu du, eta hainbat muga eta eragozpen sortu ditu zerbitzu guztietan.

Adingabeek eman diguten adibidea nabarmendu nahi dugu; izan ere, egin diren etengabeko isolamenduen eta berrogeialdien aurrean, familiekiko harremanen mugak ikusita, aisialdian eta eskolan dauden muga aurrean, haien erantzuna ulermenaren eta erresilientziaren adibide izan da.

## **7.-ATENCIÓN A LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA**

La atención a las mujeres víctimas de violencia se ha desplegado siguiendo el **Plan Aurre** de carácter interinstitucional. Este plan tiene como ejes la prevención, la formación, la atención y la investigación y es de carácter transversal.

Se ha creado un grupo técnico (AMVVM) con las responsables de cada servicio y las compañeras de nuestro servicio y se ha procedido a la definición del modelo de atención y se ha comenzado a definir los indicadores de atención, proceso y resultados acorde a este modelo.

## **8.- PERSONAS MENORES EN DESPROTECCIÓN**

No podemos obviar que en 2021 hemos seguido muy condicionados, a todos los niveles, por la pandemia del Covid-19. La necesidad de extremar la prevención ante los contagios, las limitaciones de aforos y reunión, el impacto de las diferentes olas, la gestión de las cuarentenas en los recursos residenciales... ha supuesto un reto mayúsculo que ha condicionado nuestra forma de funcionar y ha originado múltiples limitaciones y contratiempos en todos los servicios.

Queremos resaltar el ejemplo que nos han dado las personas menores de edad ya que ante los continuos aislamientos y cuarentenas que se han ido realizando, ante las limitaciones en los contactos con sus familias, ante las limitaciones en el ocio y en la escuela,... su respuesta ha sido un ejemplo de comprensión y resiliencia.



**Haurren Plan** bat diseinatzeko azken helburuarekin, ahalegin handia egin dugu gure esku-hartze eredua ebaluatzeko eta eguneratzeko. Eguneratze hori hasteko modurik onena gure printzipio gidariak berrikustea zela ulertu genuen.

Berrikuspen-prozesu horrek mugarrizko metodologiko bat izan du, oso esanguratsua eta sinbolikoa, **artatutako adingabeen eta haien familien parte-hartzeari** dagokionez. Focus group teknikaren bidez adingabeen ahotsa eman diegu.

**Hurbildu programaren** bigarren urtea izan da, berriz ere covid-ak asko baldintzatu du formatua, baina erabat sendotu dela esan dezakegu, lortutako parte-hartzea eta jasotako balorazioen emaitzak kontuan hartuta.

Familia-harreran, 2020ko azaroan hasitako **"Ikusezinak" kanpainari** jarraipena eman diegu. Kanpaina horren helburua da gizartean familia-harreraren ezagutza handiagoa sustatzea eta familia harreragileak erakartzea.

2021ean **666** jakinarazpen onartu dira, **461** familia-unitatetako **642** haurri eragiten dietenak.

**433** familia eta **790** adingabe artatu ziren Haur eta Nerabeen Zonako Taldean (HNZT).

2021. urtean zehar **1.986** adingabek izan dute espedientea irekita Haurren eta Nerabeen Babeseko zerbitzuan.

Con el objetivo último de diseñar un **Plan de Infancia**, hemos realizado un importante esfuerzo para evaluar y actualizar nuestro modelo de intervención. Entendimos que la mejor manera de comenzar esa actualización era mediante una revisión de nuestros principios rectores.

Este proceso de revisión ha contado con un hito metodológico, muy significativo y simbólico, de **participación de las personas menores de edad atendidas y sus familias**. Mediante la técnica de focus group hemos dado la voz a las personas menores de edad.

Ha sido el segundo año del **programa Hurbildu**, de nuevo muy condicionado en sus formatos por el covid, pero podemos afirmar que se ha consolidado plenamente, habida cuenta la participación obtenida y los resultados de las valoraciones recibidas.

En acogimiento familiar hemos dado continuidad a la **Campaña "Invisibles"**, iniciada en noviembre de 2020 y dirigida a promover un mayor conocimiento en la sociedad del acogimiento familiar y a la captación de familias acogedoras.

En 2021 se han recibido **666** notificaciones que afectan a **642** niños y niñas de **461** unidades familiares.

El total de familias atendidas en los equipos zonales de infancia y adolescencia (EZIA) ha sido de **433** familias y **790** niños y niñas.

**1.986** personas menores de edad han tenido abierto expediente por el Servicio de Protección a la Infancia y Adolescencia.

Era berean, **1.557** haur eta nerabek parte hartu dute familian esku hartzeko programa sozioedukatioetan eta/edo psikosozialetan.

## 9.- BESTE JARDUERA BATZUK

- **Erakundeen arteko lankidetzak.** Foru Aldundiak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan parte hartzen du, eta bere lehentasunak arlo horretan eskumenak dituzten beste erakunde batzuen -bereziki Gipuzkoako udalen- lehentasunekin uztartzen ditu. Lankidetzak horren emaitza da **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Erakunde arteko Mahaia**, gizarte zerbitzuen sarearen kohesioa, harmonia eta egituraketa hobetzeko lan egiten duena, sistemaren plangintza bateratuaren eta udalekiko koordinazioaren bidez. Horrez gain, Foru Aldundiak akordio ugari ditu sinatuta Osasun Sailarekin, esparru sozio-sanitarioa garatzeko.

- **Beharren bilakaeraren jarraipena eta gure jarduketaren plangintza** Gipuzkoako Foru Aldundiak epe ertaineko proiektuak ditu, garapen iraunkorra eta sortzen ari diren beharrei egokitzea ahalbidetzen dutenak, kalitatearen hobekuntza zerbitzu eskaintzaren hazkundearekin uztartuta. Legealdi honetako Kudeaketa Plan Estrategikoaren esparruan, Gizarte Politikako Departamentuak plazak eta zerbitzuak areagotzeko xedea du. 2018-2021 Maparen aurreikuspenaren arabera, **869** plaza berri irekiko dira. Horietatik **%64** gauzatu dira.

2021erako aurreikusitako plaza guztien exekuzioa atzeratu egin behar izan da,

Asimismo, **1.557** niños, niñas y adolescentes, han participado en los diferentes programas de intervención familiar de carácter socioeducativo y /o psicosocial.

## 9.- OTRAS ACTUACIONES

- **Colaboración interinstitucional.** La Diputación enmarca su actuación el Plan Estratégico de los Servicios Sociales de Euskadi, alineando sus prioridades con las de otras instituciones que tienen competencias en este campo y muy especialmente con los ayuntamientos de Gipuzkoa. Fruto de esta colaboración es la **Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa** que trabaja para mejorar la cohesión, armonía y estructuración de la red de servicios sociales a través de la planificación conjunta del sistema y la coordinación con los ayuntamientos. Además, la Diputación cuenta con un importante marco de acuerdos con el Departamento de Sanidad para el desarrollo del espacio socio-sanitario.

- **Seguimiento de la evolución de las necesidades y planificación de nuestra actuación.** La Diputación trabaja con proyectos a medio plazo que permitan un desarrollo sostenible y adecuado a las necesidades emergentes, combinando la mejora de la calidad con el crecimiento de la oferta de servicios. En el marco del Plan Estratégico de Gestión de esta legislatura, el Departamento de Políticas Sociales está desplegando objetivos concretos de incremento de plazas y servicios. El Mapa 2018-2021 contempla la creación de un total de **869** nuevas plazas de las que se han ejecutado el **64%**.

La ejecución de la totalidad de las plazas previstas para 2021 se ha tenido que aplazar

zentroetan egin behar izan diren doikuntzengatik, COVID19 -ari aurre egiteko isolamendu- eta segurtasun-eskakizunei aurre egiteko.

Arreta-zerbitzuek izan dituzten arazo larriekin, ez zuen zentzurik plaza kopurua handitzeak. Gainera, pandemiak eragina izan du itxaron-zerrendaren murrizketan, nahiz eta premia mantendu den.

Egoera horretan, salbuespen gisa, 2018-2021 maparen indarraldia 2022ra arte luzatzea erabaki da, eta, era berean, hurrengo mapa 2023tik aurrera garatzea, Eusko Jaurlaritzak Euskal Mapa onartzeko itxaropenarekin.

- **Lurralde oreka zerbitzuen eskaintzan.** Foru Aldundiak oinarrizkotzat jotzen du berdintasun irizpidea betetzea lurralde guztian, eta, horretarako, desorekak etengabe murriztuz joateko asmoz planifikatzen du bere jarduerak. Adinekoentzako eguneko zentroen sarea dugu horren adibide: 2.000 biztanletik gorako ia herri guztietan eskaintzen da zerbitzu hori.

- Mendekotasuna duten pertsona kopuruaren igoera dela eta, gaur egun **28.668** pertsona ezberdin artatzen ari gara.

- Departamentuaren zentro propioetan egindako inbertsioei dagokienez, egoera pandemikoak kalte egin die. **1.611.406** euroko gastua sortu da guztira.

- **14 diru-laguntza** eman dira berrikuntza,

debido a los ajustes que se han tenido que hacer en los centros para hacer frente a los requisitos de aislamiento y seguridad frente a la COVID-19.

Con los graves problemas que han sufrido los servicios de atención no tenía sentido abordar el aumento de plazas. Además, la pandemia ha incidido en la disminución de la lista de espera, a pesar de que se mantiene la necesidad.

En esta situación, se ha decidido, excepcionalmente, prorrogar la vigencia del Mapa 2018-2021 hasta 2022, y se ha decidido asimismo desarrollar el siguiente Mapa a partir de 2023, con la esperanza de que el Gobierno Vasco apruebe el Mapa Vasco.

- **Equilibrio territorial en la oferta de servicios.** La Diputación considera fundamental el objetivo de igualdad de acceso a lo largo de todo el Territorio Histórico y para ello planifica su actuación en base a la reducción progresiva de desequilibrios. Un ejemplo paradigmático es la red de centros de día para personas mayores, servicio que existe en casi todos los municipios de más de 2.000 habitantes.

- El incremento de personas dependientes ha supuesto que estemos atendiendo en la actualidad a un total de **28.668** personas diferentes.

- En lo que respecta a las inversiones realizadas en centros propios de este Departamento, éstas se han visto afectadas negativamente por la situación pandémica. Se ha generado un gasto total de **1.611.406** euros.

- Se han concedido **14 subvenciones** para

ikerketa eta gizarte-garapeneko jardueri laguntzeko, **699.929,52 €-ko** zenbatekoarekin, 2021. eta 2022. urteetarako. Diru-laguntza horietatik 7, produktu, zerbitzu, prozesu eta antolamendu-formula berriak garatzeko gizarte-berrikuntzako proiektuetara zuzenduta daude, eta beste 7 iraupen luzeko arreta eta zaintzarako tokiko ekosistemak osatzen dituzten zerbitzuak garatzeko gizarte-esperimentazioko proiektuetara.

Bestalde, **19** diru-laguntza eman dira **Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planeko** laguntzetarako, Europako funtsekin finantzatzen direnak. Diru-laguntzek 2 ildo biltzen dituzte; lehenengoan, iraupen luzeko zainketetarako ekipamendu kolektibo berrien zuzkidura aurreikusten duenean, 6 diru-laguntza eman dira, eta bigarrean, iraupen luzeko zainketen arloko berrikuntza-proiektu pilotuak aurreikusten dituenen, 13 diru-laguntza eman dira. Emandako diru-laguntzen zenbatekoa **11.126.927,83 eurokoa** da 2021-2023 urteetarako, eta **7.058.721,23 eurokoa** da 2021erako.

- **Zerbitzuak baimentzeari, kontrolatzeari eta ikuskatzeari** dagokionez, erantzukizun publikoa dela eta, arreta berezia jarri diegu alderdi horiei eta, bereziki hitzartutako zerbitzuei. Kontrol horri esker (ekonomia, kalitatea, eta erabiltzaileen eskubideak kontuan hartzen dituenen), arretaren kalitatea bermatzen da gure erantzukizunpean dauden zerbitzuetan. 2021ean urtean Departamentuak **410** ikuskapen egin ditu.

Horiek guztiak memoria honetan azaltzen ditugun gaitako batzuk baino ez dira. Espero dugu memoria hau Gipuzkoako

apoyar las actividades de innovación, investigación y desarrollo social por un importe de **699.929,52 €**, para los años 2021 y 2022. De estas subvenciones, 7 van dirigidas a proyectos de innovación social para el desarrollo de nuevos productos, servicios, procesos y fórmulas organizativas y otras 7 para proyectos de experimentación social para el desarrollo de servicios que conformen ecosistemas locales de atención y cuidados de larga duración.

Por otro lado, se han concedido **19** subvenciones para ayudas del **Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia** que se financian con fondos europeos. Las subvenciones recogen 2 líneas, en la primera, que contempla la dotación de nuevos equipamientos colectivos para cuidados de larga duración se han concedido 6 subvenciones y en la segunda, que contempla proyectos piloto de innovación en materia de cuidados de larga duración, se han concedido 13 subvenciones. El importe de las subvenciones concedidas asciende a **11.126.927,83 euros** para los años 2021-2023, siendo el importe para 2021 de **7.058.721,23 euros**.

- En cuanto a la **autorización, control e inspección** de los servicios, la responsabilidad pública exige una atención especial a estos aspectos y muy especialmente a los servicios contratados o convenidos. Gracias a este control (económico, de calidad, de derechos de las personas usuarias), se garantiza la calidad de la atención en servicios bajo nuestra responsabilidad. En 2021 se han realizado **410** inspecciones a centros.

Estas son sólo algunas de las materias sobre las que ofrecemos información en esta Memoria que esperamos sea de utilidad a

ongizatean eta kohesioan interesatuta dauden pertsona guztientzat baliagarri izatea, hori baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Plan Estrategikoaren helburu estrategikoetako bat. Honen osagarri, [Behagi](#) Gipuzkoako Gizarte Behatokiaren web orrira jo dezakezue.

todas las personas interesadas en la mejora del bienestar y la cohesión social en Gipuzkoa, que es uno de los Objetivos Estratégicos del vigente Plan Estratégico de Gestión de la Diputación Foral. Como complemento a la misma, recomendamos la consulta de [Behagi](#), el Observatorio social de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, 2022ko maiatzaren 31n.

Donostia-San Sebastián, a 31 de mayo de 2022.

**Maite Peña Lopez**  
**Diputada de Políticas Sociales**  
**Gizarte Politikako Foru Diputatua**

**INDIZEA**

<b>1.- SARRERA</b> .....	<b>22</b>
1.1.- Xedea, ikuspegia eta baloreak .....	22
1.2.- Egitura eta funtzioak .....	24
1.3.- Organigrama .....	27
1.4.- Aurrekontua .....	28
<b>2.- ERABILTZAILEEI ARRETA</b> .....	<b>29</b>
2.1. Arretari buruzko datu globalak .....	29
2.2 Esparruaren araberako azterketa .....	35
2.2.1.- MENDEKOTASUNA .....	35
2.2.1.A.-Adinekoentzako egoitza zentroak .....	35
2.2.1.B.-Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak .....	37
2.2.2.- ARRETA SOZIOSANITARIOA .....	38
2.2.2.A.- Koordinazio soziosanitarioaren garapena .....	38
2.2.2.B.- Baliabideen kudeaketa .....	39
2.2.3.- DESGAITASUNA .....	43
2.2.3.A.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak .....	43
2.2.3.B.- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa .....	44
2.2.4.- GAIXOTASUN MENTALA .....	46
2.2.4.A.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak .....	46
2.2.4.B.- Buru-nahaste larria duten errehabilitazio psikosozialeko zentroak .....	49
2.2.4.C.- Laguntza psikosozial komunitarioko programa .....	50
2.2.5.- MENDEKOTASUNA, DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUN MENTALAREN ESPARRUAN ESKAINITAKO ZERBITZUAK .....	51
2.2.5.1.- Mendekotasuna eta desgaitasuna baloratu eta diagnostikatzeko zerbitzua .....	51
2.2.5.2.- Etxez-etxeko laguntza zerbitzua .....	53
2.2.5.3.- Atsedenerako zerbitzua .....	55
2.2.5.4.- Laguntza teknikoak emateko zerbitzua .....	56
2.2.5.4.1.- Laguntza teknikoak emateko eta ingurune fisikora egokitzeko zerbitzua .....	57
2.2.5.4.2.- Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak eskuratzeko laguntza ekonomikoa .....	57
2.2.5.4.3.- Ohiko etxebizitzan eta ibilgailu partikularretan egokitzapenak egiteko laguntza ekonomikoa .....	59
2.2.5.5.- Sendian Programa .....	60
2.2.5.6.- Arreta Goiztiar Zerbitzua .....	61
2.2.5.7.- Bizimodu independentea babesteko zerbitzua .....	62
2.2.5.8.- Bizimodu independentea babesteko programa .....	62
2.2.5.9.- Gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntzak .....	63
2.2.6.- HAURREN ETA NERABEEN BABESEKO ZERBITZUA .....	65
2.2.6.1.- Haurren babesgabetasuna balioesteko eta diagnostikatzeko zerbitzua .....	65
2.2.6.2.- Adingabeentzako egoitza-zentroak .....	68
2.2.6.3.- Adingabeentzako eguneko zentroak .....	71
2.2.6.4.- Familia-harrera sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua .....	72
2.2.6.5.- Aldi baterako egonaldiak .....	74
2.2.6.6.- Adopzioa sustatzeko eta teknikoki babesteko zerbitzua .....	74
2.2.6.7.- Familiekin gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak .....	77
2.2.7.- GIZARTERATZEA .....	80

2.2.7.1.- Bazterkeria eta marginazio egoeran dauden pertsonentzako egoitza zentroak.....	83
2.2.7.2.- Gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zentroa .....	89
2.2.7.3.-Zentro okupazionalak .....	91
2.2.7.4.-Laguntza espezializatuaren programa .....	92
2.2.7.5.- Enplegarritasun-programak.....	93
2.2.7.6.- Gizarteratzeko beste programak .....	97
<b>2.2.8.- INDARKERI MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK .....</b>	<b>105</b>
2.2.8.1.- Berehalako harrera zentroa.....	105
2.2.8.2.- Harrera zentroak (egonaldi ertaina) .....	106
2.2.8.3.- Tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren pertsonen laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzuak.....	107
<b>2.2.9.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO FORU ZERBITZUA .....</b>	<b>108</b>
<b>2.2.10.- PRESTAZIO EKONOMIKOAK .....</b>	<b>109</b>
2.2.10.1.- Mendekotasunari buruzko 39/2006 legearen ondoriozko prestazioak .....	109
2.2.10.2.- Kotizatu Gabekoen Pentsioa-KGP .....	116
2.2.10.3.- Ezinduak Gizarteratzeko Legearen Prestazioa .....	118
2.2.10.4.- Gizarte Ongizateko Funtzaren Pentsioak.....	119
2.2.10.5.- Gizarteratzeko diru laguntzak.....	121
2.2.10.6.- Haurren eta nerabeen babeseke zerbitzuaren laguntza ekonomikoak .....	122
<b>3.- ZENTRO PROPIOAK ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK.....</b>	<b>124</b>
3.1.- Zentro propioak .....	124
3.1.1. Egogain Gerontologia Zentroa.....	124
3.1.2. Pasaiako Itsas-Etxeko Ostatua .....	125
3.2.- Erakunde autonomoak .....	126
3.2.1 Uliazpi Fundazioa .....	126
3.2.2 Kabia .....	127
<b>4.- ZEHARKAKO ZERBITZUAK.....</b>	<b>128</b>
4.1.- Idazkaritza Teknikoa .....	128
4.1.1.- Lizitazioak .....	128
4.1.2.- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea .....	130
4.1.3.- Jendearen arretarako bulegoa .....	130
4.1.4.- Telefonozko bidezko informazio zerbitzua .....	131
4.1.5.- Kontsultak, kexak eta iradokizunak .....	132
4.1.6.- Familia ugarien tituloak .....	133
4.1.7.- Ziurtagiriak.....	134
4.1.8.- Sarrera eta irteera erregistroak.....	134
4.1.9.- Langileen prestakuntza.....	134
4.1.10.- Gizarte Zerbitzuetako Foru Erregistroa .....	135
4.1.11.- Gizarte Ekimena.....	135
4.2.- Kudeaketa ekonomiko .....	140
4.3.- Ikuskapena .....	141
4.4.- Inbertsioak .....	143
4.5.- Informazio estatistikoa .....	145
<b>5.- 2021ean ONARTUTAKO ARAUAK .....</b>	<b>146</b>

**ÍNDICE**

<b>1.- INTRODUCCIÓN .....</b>	<b>22</b>
1.1.- Misión, visión y valores .....	22
1.2.- Estructura y funciones .....	24
1.3.- Organigrama .....	27
1.4.- Presupuesto .....	28
<b>2.- ATENCIÓN A PERSONAS USUARIAS .....</b>	<b>29</b>
2.1 Datos de atención globales .....	29
2.2 Análisis por ámbito de actuación .....	35
2.2.1.- DEPENDENCIA .....	35
2.2.1.A.-Centros residenciales para personas mayores.....	35
2.2.1.B.-Centros de día para personas mayores en situación de dependencia .....	37
2.2.2.- ATENCIÓN SOCIOSANITARIA .....	38
2.2.2.A.-Desarrollo de la coordinación sociosanitaria .....	38
2.2.2.B.- Gestión de recursos.....	39
2.2.3.- DISCAPACIDAD .....	43
2.2.3.A.- Centros residenciales para personas con discapacidad .....	43
2.2.3.B.- Centros de día para personas con discapacidad .....	44
2.2.4.- ENFERMEDAD MENTAL .....	46
2.2.4.A.- Centros residenciales para personas con enfermedad mental.....	46
2.2.4.B.- Centros de rehabilitación psicosocial para personas con Trastorno Mental Severo ....	49
2.2.4.C.- Programa de apoyo psicosocial comunitario .....	50
2.2.5.- SERVICIOS Y PROGRAMAS PRESTADOS EN EL ÁMBITO DE LA DEPENDENCIA, LA DISCAPACIDAD Y LA ENFERMEDAD MENTAL .....	51
2.2.5.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la dependencia y la discapacidad .....	51
2.2.5.2.- Servicio de ayuda a domicilio .....	53
2.2.5.3.- Servicio de respiro .....	55
2.2.5.4.- Servicio de ayudas técnicas .....	56
2.2.5.4.1- Servicio de ayudas técnicas y adaptación del medio físico .....	57
2.2.5.4.2.- Ayuda económica para la adquisición de productos no recuperables .....	57
2.2.5.4.3.- Ayuda económica para la realización de adaptaciones en la vivienda habitual y en los vehículos particulares .....	59
2.2.5.5.- Programa Sendian .....	60
2.2.5.6.- Servicio de atención temprana.....	61
2.2.5.7.- Servicio de apoyo a la vida independiente .....	62
2.2.5.8.- Programa de apoyo a la vida independiente.....	62
2.2.5.9.- Medidas de apoyo para el ejercicio de la capacidad jurídica .....	63
2.2.6.- PROTECCIÓN A LA INFANCIA Y A LA ADOLESCENCIA .....	65
2.2.6.1.- Servicio de valoración y diagnóstico de la desprotección infantil .....	65
2.2.6.2.- Centros residenciales para personas menores de edad .....	68
2.2.6.3.- Centros de día para personas menores de edad .....	71
2.2.6.4.- Servicio de promoción y apoyo técnico al acogimiento familiar .....	72
2.2.6.5.- Estancias temporales.....	74
2.2.6.6.- Servicio de promoción y apoyo técnico a la adopción .....	74
2.2.6.7.- Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial con familias .....	77
2.2.7.- INCLUSIÓN .....	80
2.2.7.1.- Centros residenciales para personas en situación de exclusión y marginación .....	83
2.2.7.2.- Centro de día para atender necesidades de inclusión social.....	89



2.2.7.3.- Centros ocupacionales.....	91
2.2.7.4.- Programa de acompañamiento especializado .....	92
2.2.7.5.- Programas de empleabilidad.....	93
2.2.7.6.- Otros programas de Inserción .....	97
<b>2.2.8.- MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA .....</b>	<b>105</b>
2.2.8.1.- Centro de acogida inmediata. ....	105
2.2.8.2.- Centros de acogida (media estancia).....	106
2.2.8.3.- Servicio de atención sociojurídica y psicosocial dirigido a las víctimas de maltrato o de actos contra la libertad sexual.....	107
<b>2.2.9.- SERVICIO DE COORDINACIÓN A URGENCIAS SOCIALES .....</b>	<b>108</b>
<b>2.2.10.- PRESTACIONES ECONÓMICAS .....</b>	<b>109</b>
2.2.10.1.- Prestaciones económicas derivadas de la ley 39/2006, de dependencia.....	109
2.2.10.2.- Pensión No Contributiva.....	116
2.2.10.3.- Prestaciones de la ley de integración social de personas con minusvalía.....	118
2.2.10.4.- Pensiones del Fondo de Bienestar Social .....	119
2.2.10.5.- Ayudas económicas de inclusión social .....	121
2.2.10.6.- Ayudas económicas del servicio de protección a la infancia y la adolescencia.....	122
<b>3.- CENTROS PROPIOS Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS .....</b>	<b>124</b>
3.1.- Centros propios.....	124
3.1.1. Centro Gerontológico Egogain .....	124
3.1.2. Hospedería de la Casa del Mar de Pasaia .....	125
3.2.- Organismos autónomos.....	126
3.2.1 Fundación Uliazpi.....	126
3.2.2 Kabia .....	127
<b>4.- SERVICIOS TRANSVERSALES .....</b>	<b>128</b>
4.1.- Secretaría Técnica.....	128
4.1.1.- Licitaciones .....	128
4.1.2.- Derecho de acceso a la información pública .....	130
4.1.3.- Oficina de atención al público .....	130
4.1.4.- Servicio de información telefónica .....	131
4.1.5.- Consultas, quejas y sugerencias .....	132
4.1.6.- Títulos de familia numerosa .....	133
4.1.7.- Certificados.....	134
4.1.8.- Registros de Entrada y Salida.....	134
4.1.9.- Formación del personal .....	134
4.1.10.- Registro Foral de Servicios Sociales .....	135
4.1.11.- Iniciativa social.....	135
4.2.- Gestión económica .....	140
4.3.- Inspección .....	141
4.4.- Inversiones.....	143
4.5.- Información estadística.....	145
<b>5.- NORMATIVA APROBADA EN 2021 .....</b>	<b>146</b>

## 1.- SARRERA

### 1.1.- Xedea, ikuspegia eta baloreak

Gure **xedea** da Gipuzkoako Foru Aldundiaren erantzukizun publikoa betetzea, hau da, gizarte zerbitzuen sistemako eskumen esparruaren barne, herritarren eskubideak bermatzea, beste gizarte eragileekin elkarlanean, Gipuzkoako pertsonen bizi baldintzak eta kohesio soziala hobetzen laguntzeko.

Departamentu honen ikuspegia honako hau da, udalekin, hirugarren sektoreko entitateekin, bestelako administrazio publikoekin eta bestelako laguntzaileekin, Gipuzkoan gizarte zerbitzu sare integratu eta partekatua eraikitzeko prozesua sustatzen duen erakundea izatea, eta bere jarduerari esker, Gipuzkoako sare soziala, solidaritatea eta kohesio soziala indartzea.

Erabiltzaileen bizi kalitatean eta ongizatean eragin positiboa duten zerbitzu eta gizarte laguntzak ematen dituen erakundea izatea, eta prestazio horien aurrean, Gipuzkoako herritar guztiak harro sentitzea.

Artatutako pertsonen bizi kalitatea sustatzeko arreta eredu ezarri du Gizarte Politikako Departamentuak; eta horretarako, printzipio hauek hartu ditu oinarritzat, besteak beste:

- pertsonalizazioa
- osotasuna
- pertsona bere harreman sarearekin batera tratatzea
- gertutasuna

## 1.- INTRODUCCIÓN

### 1.1.- Misión, visión y valores

Es nuestra **misión** cumplir con la responsabilidad pública de la Diputación Foral de Gipuzkoa de garantizar los derechos de la ciudadanía, dentro del marco competencial del sistema de servicios sociales, para contribuir a la mejora de las condiciones de vida de las personas y a la cohesión social en Gipuzkoa, desarrollando esta labor en colaboración con otros agentes sociales.

La visión del Departamento es ser una institución que, junto a los ayuntamientos, organizaciones del tercer sector, otras administraciones públicas y otros colaboradores, promueve la construcción de una red integrada y compartida de servicios sociales en el territorio, y que, con su actuación, refuerza el tejido social, la solidaridad y la cohesión social en Gipuzkoa.

Ser una institución que consiga que los servicios y ayudas sociales que facilita tengan resultados en la calidad de vida y el bienestar de las personas usuarias, y sean motivo de satisfacción para el conjunto de la ciudadanía de Gipuzkoa.

Ser una institución que ha definido un modelo de atención orientado a promover la calidad de vida de las personas atendidas, que esté basado, entre otros, en los siguientes principios:

- personalización
- integralidad
- abordaje de la persona junto con su red relacional
- proximidad

## Sarrera/ Introducción

## 2021eko Memoria

- jarraitasuna
- akonpainamendua
- onuradunen erantzukizuna
  
- autonomiaren sustapena
- eskubideen ikuspegia
- plangintza
- aurrea hartzea eta prebentzioa
  
- continuidad
- acompanyamiento
- responsabilidad de las personas destinatarias
- promoción de la autonomía
- enfoque de derechos
- planificación
- anticipación y prevención

Bere ikuspegia betetzeko kudeaketa ezartzen duen erakundea izatea; horretarako, abian jarritako jarduerak, artatutako eta lagundutako pertsonen bizi kalitatean eta asebetetzean dituzten ondorioak neurtu eta aztertzen ditu.

Ser una institución con una gestión orientada al cumplimiento de su visión, que mide y conoce los resultados de sus actuaciones en la mejora de la calidad de vida y en la satisfacción de las personas a las que acompaña y atiende.

Aurreko guztia, artatzen ditugun pertsonen eta gizarte arretako sarea osatzen dugun administrazio eta erakundeetako langileen parte-hartzearekin egiten duen erakundea izatea.

Ser una institución que hace todo lo anterior con la participación de las personas a quienes atendemos y de las personas trabajadoras de las diversas administraciones y organizaciones que conformamos nuestra red de atención social.

**Baloreak:****Valores:**

- Erantzukizun publikoa
- Gardentasuna
- Pertsonen orientatua
- Pertsona eta kolektiboen erantzukizuna, autonomia eta jabetasuna.
- Pertsonalizazioa
- Gertutasuna
- Partaidetza
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna
- Justizia soziala
- Ehun sozial eta komunitarioa indartzea
  
- Responsabilidad pública
- Transparencia
- Orientación hacia las personas
- Responsabilidad, autonomía, empoderamiento de personas y colectivos
- Personalización
- Proximidad
- Participación
- Igualdad entre mujeres y hombres
- Justicia social
- Fortalecimiento del tejido social y comunitario

## 1.2.- Egitura eta funtzioak

2020ko urriaren 20ko 21/2020 Foru Dekretuak, Gizarte Politikako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa dio, eginkizun esparru eta funtzio hauek dagozkiola Gizarte Politikako Departamentuari:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bere eskumenekoak diren zerbitzuak antolatzea.
- 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, 22.2 artikuluan arautzen dituen bigarren mailako arretako gizarte zerbitzuak ematea.
- Arrisku larrian edo babesik gabe dauden adingabeen babesaren alorreko eskumenak, legeak esleitzen dizkionak, gauzatzea.
- Gizarte ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea.
- Elkartegintza eta boluntario lana sustatzea.
- Erabiltzaileek eta profesionalek gizarte zerbitzuetako kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten bultzatzea.
- Mankomunitate eta beste udal elkarte batzuk sustatzea gizarte zerbitzuak emateko.

## 1.2.- Estructura y funciones

El Decreto Foral 21/2020, de 20 de octubre, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Políticas Sociales establece que al Departamento de Políticas Sociales le corresponden las siguientes áreas de actuación y funciones:

- La planificación de los servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales que sean de su competencia.
- La provisión de los servicios sociales de atención secundaria regulados en el artículo 22.2 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.
- Las competencias que en materia de protección a las personas menores de edad en situación de riesgo grave o de desamparo le atribuya la legislación vigente.
- El fomento y la promoción del tercer sector de acción social.
- El fomento del asociacionismo y del voluntariado.
- La promoción de la participación de las personas usuarias y profesionales en la gestión y evaluación de los servicios sociales.
- La promoción y el fomento de mancomunidades y otras agrupaciones municipales para la prestación de servicios sociales.

## Egitura eta Funtzioak/Estructura y funciones

## 2021eko Memoria

- Informazio eguneratua ematea lurraldeko prestazioei eta zerbitzuei dagokienez.
- Lurraldeko zerbitzu, zentro eta erakundeak baimentzea eta homologatzea; eta, zerbitzu, zentro eta erakunde horiek direla eta ikuskaritzalanak egitea eta zehapen-ahalmena erabiltzea.
- Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa kudeatzea eta mantentzea.
- Eremu sozio-sanitarioko kooperazioa eta koordinazioa gauzatzea.
- Indarrean diren arauetan esleitzen zaizkion gainerako eskumenak erabiltzea.
- La aportación de información actualizada referida a las prestaciones y servicios del territorio.
- La autorización y homologación de servicios, centros y entidades del territorio; y la inspección y el ejercicio de la potestad sancionadora con respecto a tales servicios, centros y entidades.
- La gestión y mantenimiento del Registro Foral de Servicios Sociales.
- La cooperación y coordinación en el ámbito sociosanitario.
- Las demás competencias que se le atribuyan por la normativa aplicable

Departamentu horri atxikitzen zaizkio Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru organismo autonomoak.

Se adscriben a este departamento los organismos autónomos forales «Fundación Uliazpi» y «Kabia».

Esleituta dituen funtzioak garatzeko, Gizarte Politikako Departamentuak, zerbitzuen prestazioa antolatzeko bi modu ditu: bai zuzenean, baliabide propioak erabiliz, bai ekimen pribatuarekin lankidetzan, hain zuzen ere 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, V. tituluaren xedatutako formulen arabera.

En el desarrollo de las funciones que tiene encomendadas, el Departamento de Políticas Sociales organiza la prestación de los servicios bien directamente, a través de sus propios medios, bien con la colaboración de la iniciativa privada mediante fórmulas de relación previstas en el título V de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

Gizarte Politikako Departamentuaren **egiturari** dagokionez, Foru Diputatua da departamentua zuzendu eta antolatzeko burua. Foru Diputatu hori da Departamentuko organo gorena, baita Diputatuen Kontseiluko kidea ere.

En cuanto a la **estructura** del Departamento de Políticas Sociales, ésta se organiza bajo la dirección y organización de la Diputada Foral que, además de miembro del Consejo de Gobierno Foral, constituye el órgano superior del Departamento.




## Egitura eta Funtzioak/Estructura y funciones

## 2021eko Memoria

Departamentuari esleitutako funtzioak betetzeko 4 zuzendaritza nagusi, 2 foru organismo autonomo (Uliazpi Fundazioa eta Kabia) eta 5 zerbitzu sortu dira.

Para el cumplimiento de las funciones atribuidas se crean 4 direcciones generales, 2 organismos autónomos (Fundación Uliazpi y Kabia) y 5 servicios.

1.3.- Organigrama




## 1.4.- Aurrekontua

## 1.4.- Presupuesto

### T. 1.- Aurrekontua / Presupuesto

2021eko Aurrekontua/Presupuesto 2021					
Programa		Hasierakoa/ Inicial	Behin betikoa/ Definitivo	Exekuzioa/ Ejecución	%
10	Zerbitzu orokorrak / Servicios Generales	4.353.119	4.383.119	4.254.936	1,0%
100	Desgaituentzako arreta / Atención a personas con discapacidad	53.447.408	53.533.815	52.916.587	12,3%
110	Adineko pertsonentzako arreta / Atención a personas mayores	111.290.972	116.418.520	113.051.507	26,2%
200	Plangintza eta informazio sistemak / Planificación y sistemas de información	4.352.802	4.988.817	4.866.625	1,1%
210	Inbertsio plana / Plan de Inversiones	14.666.265	19.345.008	18.458.796	4,3%
220	Aldizkako prestazio ekonomikoak / Prestaciones económicas periódicas	78.904.008	83.433.527	83.028.614	19,3%
300	Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume biktimen arreta / Inserc. Social y At. a Mujeres Víctimas de Viol. Machista	34.709.299	32.923.616	32.349.723	7,5%
310	Haurren eta nerabeen babesa /Protección a la Infancia y a la Adolescencia	52.433.830	53.095.622	52.904.639	12,3%
400	Foru Erakunde publikoen kudeaketa / Gestión de Organismos públicos forales	66.468.265	69.785.050	69.364.959	16,1%
<b>Guztira /Total</b>		<b>420.625.968</b>	<b>437.907.094</b>	<b>431.196.386</b>	<b>100,0%</b>

### G. 1.- Likidatutako aurrekontua / Presupuesto liquidado





## 2.- ERABILTZAILEEI ARRETA

## 2.- ATENCIÓN A PERSONAS USUARIAS


### 2.1. Arretari buruzko datu globalak

### 2.1 Datos de atención globales

Ondoko grafikoan zentroetan zein zerbitzuen bidez arreta jaso duten pertsona kopurua agertzen da, baita prestazio ekonomikoen hartzaile kopurua ere.

El siguiente gráfico muestra el número de personas atendidas tanto en centros como mediante servicios, así como el número de personas beneficiarias de prestaciones económicas.

G. 2.-Arretari buruzko datu globalak. Urtean artatutako pertsonak / Datos globales de atención. Personas atendidas en el año




Guztira **32.696** pertsonari eman zaie arreta. 2021ko abenduan **28.668** pertsona artatu ziren eta horietatik **%61** emakumeak dira.

El total de personas diferentes atendidas en el año es de **32.696**. En diciembre de 2021 se atendía a **28.668** personas, de las cuales el **61%** son mujeres.

2012-2021 epean zehar arreta emandako pertsona kopuruaren bilakaera hurrengo grafikoan ageri da:

En el siguiente gráfico se muestra la evolución del número de personas atendidas en el período 2012-2021:


**G.3.- Arretari buruzko datu globalak. Urteko bilakaera / Datos globales de atención. Evolución anual**




Zentro mota ezberdinetan artatutako pertsonak aztertzeko, baliabideetako arretan egon den bilakaera ikus daiteke ondoko grafikoetan.

Analizando las personas atendidas en los distintos tipos de centros, podemos observar la evolución de la atención de los recursos en los siguientes gráficos.


**G. 4.- Adinekoen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas mayores (12-31)**




G. 5.- Baliabide soziosanitarioetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera / Evolución del número de personas atendidas en centro residenciales sociosanitarios (12-31)




G. 6.- Desgaitasuneko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con discapacidad (12-31)




G. 7.- Gaixotasun mentaleko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos para personas con trastorno mental (12-31)



G. 8.- Adingabeen baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas menores atendidas (12-31)



G. 9.- Gizarteratzeko baliabideetan artatutako pertsona kopuruaren bilakaera/Evolución del número de personas atendidas en recursos de inclusión (12-31)



2021 urtean zehar, guztira **17.167** pertsona mendekotasun, desgaitasun eta RAI balioespen egin ziren, 2020ean baino %16 gutxiago.

Asimismo, durante el año 2021 fueron valoradas de dependencia, discapacidad y RAI un total de **17.167** personas, un 16% menos que en 2020.

**Plaza berrien sorreraren inguruan:**

**En cuanto a la creación nuevas de plazas:**

2021 urtean zehar, egiturazko **150** plaza berri hitzartu dira, egiturazko **87** plaza kendu dira gizarte baliabide ezberdinetan. Zehazki, plaza horiek honela banatu dira (plaza berriak):

A lo largo del 2021 se han concertado **150** plazas estructurales; se han suprimido **87** plazas estructurales en distintos recursos sociales de acuerdo a la siguiente distribución (plazas nuevas):

## G. 10.- Baliabide ezberdinetako plaza berriak / Nuevas plazas en distintos recursos



**Adinekoentzako egoitzetan 18** plaza berri hitzartu dira: 13 Oiartzunen, Petra Lekuonan eta 5 Arrasaten, horietako 4 San Juan de Diosen eta 1 Iturbiden.

En las **residencias para personas mayores**, se han concertado **18** nuevas plazas, 13 en Oiartzun, Petra Lekuona y 5 en Arrasate, 4 de ellas en San Juan de Dios y 1 en Iturbide.

**78** plaza kendu dira: 37 Ordizian, COVID zentro gisa gaituta; 13 Donostian, Bermingham zentroan; eta, bestalde, COVID zentrorako 27 isolamendu-plaza kendu dira Donostian, 15 Miramon Sanitastan eta 12 Txara 2an.

Se han suprimido **78** plazas: 37 en Ordizia, que se ha habilitado como centro COVID, 13 en Donostia, en el centro Bermingham y por otro lado, se han suprimido 27 plazas de aislamiento para COVID en Donostia, 15 en Sanitas Miramon y 12 en Txara 2.

Era berean, **5 plaza gehiago** jarri dira COVID duten Arrasateko San Juan de Dios egoiliarrentzat.

Asimismo, se han habilitado **5 plazas más** para residentes con COVID en Arrasate, San Juan de Dios.

Eibarko Ospitalean **baliabide soziosanitarioetarako 48** plazak, nahiz eta 2021ean COVIDerako erreferentzia-zentro gisa erabili, egiturari dagokionez alojamendu soziosanitarioa eskaintzera bideratuta daude. Azaroaren 15etik abenduaren 10era, perfil soziosanitarioko 17 pertsona artatu ziren.

Las **48** plazas para **recursos sociosanitarios** en el Hospital de Eibar, a pesar de haberse utilizado en 2021 como centro de referencia para COVID, estructuralmente están destinadas a ofrecer alojamiento sociosanitario. Entre el 15 de noviembre y el 10 de diciembre se atendieron 17 personas de perfil sociosanitario.

**Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetan**, Azpeitian Olatzondo zentroa ireki da, Gautenak kudeatua, 14 egoitza-plaza eta 16 eguneko zentroekin. Era berean, 9 plaza itundu dira Donostiako Berriz egoitzan eta bat Zestoan, Gisasola egoitzan.

Eguneko zentroetan 32 plaza itundu dira guztira, eta 4 kendu dira. 32 plaza horietatik 16 Olatzondon eta Azpeitian itundu dira, eta 11 Pasaiaiko garagune berrian, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat.

Bestalde, plaza bat kendu da Bergarako garagunean, bat Intxaurrondoko eguneko zentroan, Aspacek kudeatua, eta beste 2 Erreterian, Tulleko eguneko zentroan.

**Osasun mentaleko egoitzetan**, Zubietxe zentroa ireki da (12 plaza) Donostian, nahasmendu mental larria duten pertsonentzat.

**Gizarteratzeko baliabideetan**, egiturazko plazetan, 53 plaza itundu dira eta 5 kendu dira.

**Gizarteratzeko eguneko zentroetan**, zentro berri bat ireki da Beasainen, Peñascalek kudeatua, eta 8 plaza ditu.

**Behagi-Gizarte Zerbitzuen Behatokiari** dagokionez, 4.337 pertsonak bisitatu dute bere webgunea.

**Gizarte ekimenerako laguntzen** bidez, irabazte asmorik gabeko 178 erakundeei diru-laguntzak eman zaizkie, guztira programa egiteko, zehazki, esparru hauetan: esku-hartze soziala, prebentzio eta sentsibilizazio programak, ikerketa eta berrikuntza proiektuak eta inbertsio txikiak.

En los **recursos para personas con discapacidad** se ha abierto en Azpeitia el centro Olatzondo, gestionado por Gautena, con 14 plazas residenciales y 16 de centro de día. Asimismo, se han concertado 9 plazas en la residencia Berriz de Donostia y una en Zestoa, en la residencia Gisasola.

En los centros de día se han concertado en total 32 plazas y se han suprimido 4. Entre estas 32, 16 se han concertado en Olatzondo, Azpeitia y 11 en el nuevo garagune de Pasaia para personas con discapacidad intelectual.

Por otro lado, se ha suprimido una plaza en el garagune de Bergara, otra en el centro de día de Intxaurrondo gestionado por Aspace y 2 en Erretereria, en el centro de día de Tulle.

En las residencias de **salud mental**, se ha abierto el centro Zubietxe con 12 plazas en Donostia, dirigido a personas con trastorno mental grave.

En los **alojamientos de inserción**, en plazas estructurales, se han concertado 53 plazas y se han suprimido 5.

En los **centros de día de inserción**, se ha abierto un nuevo centro en Beasain, gestionado por Peñascalek, con 8 plazas.

En lo que respecta al **Observatorio de Servicios Sociales-Behagi**, 4.337 de personas han visitado su página web.

A través de las **ayudas a la iniciativa social** se han concedido subvenciones a 178 entidades guipuzcoanas sin ánimo de lucro para la realización de programas de intervención social, prevención y sensibilización, investigación e innovación, así como pequeñas inversiones

## 2.2 Esparruaren araberako azterketa

## 2.2 Análisis por ámbito de actuación

### 2.2.1.- MENDEKOTASUNA

### 2.2.1.- DEPENDENCIA

#### 2.2.1.A.-Adinekoentzako egoitza zentroak

#### 2.2.1.A.-Centros residenciales para personas mayores

Adinekoentzako egoitza zentroak, ohiko etxebizitza edo behin betiko etxebizitza gisa erabiltzen diren zentroak dira; dena dela, batzuetan behin-behineko zentro gisa ere erabiltzen dira, hain zuzen ere, 2 eta 3. graduko mendekotasuna duten adineko pertsonentzat (eta salbuespen gisa 1. graduontzat). Egoera horretan dauden pertsonak ezin dituzte beren ohiko ingurunean edo bestelako egoitza-aukera arinagoetan beren premiak behar bezala bete, laguntza maila handiagoa behar baitute, eta horrelako zentroetan arreta osoa eta etengabekoa ematen zaie.

Los centros residenciales para personas mayores son centros destinados a servir de vivienda habitual o permanente, y, en su caso, temporal, a personas mayores en situación de dependencia en grados 2 y 3 (y excepcionalmente en grado 1), que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual, o en alternativas de alojamiento de carácter más ligero, por requerir apoyos de mayor intensidad, ofreciéndose en estos centros una atención integral y continua.

**5.319** plaza eskaintzen dira guztira, eta horietatik **4.585**, foru finantzaketa dute. Zenbaketa horretan ez dira sartu aldi baterako plazak, ezta alor soziosanitariokoak ere.

El total de plazas ofertadas es de **5.319**, de las cuales **4.585** son de financiación foral. No se incluyen en ese cómputo las plazas temporales ni las de perfil sociosanitario.

Abenduaren 31n **478** pertsona zeuden adinekoentzako egoitzan sartzeko itxaron zerrendan, 2020ko data berean baino %40 gutxiago.

A 31-12 había **478** personas en lista de espera para acceder a centros residenciales para personas mayores, un 40% menos que a la misma fecha de 2020.

Beherakada hori ez dago premiarik ezarekin lotuta, pandemiarekin baizik; izan ere, eskaerak murriztu egin dira kutsatzeak, berrogeialdiak, irteeren murrizketak eta abar jasateko beldurragatik.

Esta disminución no va ligada con la falta de necesidad sino con la pandemia, ya que las solicitudes han descendido por el temor a contagios, pasar cuarentenas, restricciones de salidas, etc.

Ondoren, mendekotasun egoeran dauden adineko pertsonen egoitza zentroi buruzko datu orokorrak datoz.

A continuación se muestran los datos generales de atención en centros residenciales para personas mayores en situación de dependencia.

## Mendekotasuna / Dependencia

## 2021eko Memoria

Urtean zehar, **5.393** pertsonari eman zaie arreta.

A lo largo del año se ha atendido a **5.393** personas.

Abenduaren 31n, **4.334** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%72** emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **4.334** personas, un **72%** mujeres.

Baja izan diren 1.664 pertsonen batz-beste adina **85,15** urtekoa izan da.

La edad media de las 1.664 personas que han causado alta se ha situado en **85,15** años.

Baja izan diren 1.354 pertsonen batz-beste adina **87,9** urtekoa izan da.

La edad media de las 1.354 personas que han causado baja se ha situado en **87,9** años.

Heriotzagatik baja eragin duten egonaldien **batez-beste** iraupena **3,4** urtekoa da.

La **duración media** de las estancias de las personas que han causado baja por fallecimiento es de **3,4** años.

Okupazioa **%94koa** izan da plaza orokorretan eta **%97koa** unitate psikogeriatrikoetan.

La ocupación ha sido del **94%** en plazas de perfil general y **97%** en las plazas de unidades psicogerítricas.

Profilen araberako errotazioa aztertuz gero, ikusten da plaza orokorretan psikogeriatrikoetan baino errotazio (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) txikiagoa dagoela (orokorretan **%1,18koa**, eta psikogeriatrikoetan **%1,33koa**).

Si analizamos la rotación por perfiles, las plazas de perfil general presentan una menor rotación (personas atendidas año/núm. plazas) (**1,18%**) que las de unidades psicogerítricas (**1,33%**).



### 2.2.1.B.-Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak

Mendekotasun egoeran dauden adinekoentzako eguneko zentroak, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko muga fisiko eta / edo psikiko garrantzitsuak dituztelako, ohiko ingurunean bere premiak behar bezala betetzeko zailtasunak dituzten pertsonei bideratuta daude.

Guztira, **1.805** plaza daude eta horietatik **1.543k** foru finantzaketa dute.

Abenduaren 31n, **120** pertsona zeuden itxaron zerrendan, iaz baino %35 gutxiago.

2021ean zehar **1.888** pertsona artatu dira.

Abenduaren 31n, **1.258** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik **%73** emakumeak.

Abenduaren 31n, okupazioa **%82koa** zen eta rotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **1,22koa**.

### 2.2.1.B.-Centros de día para personas mayores en situación de dependencia

Los centros de día para personas mayores en situación de dependencia están dirigidos a personas que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual por presentar importantes limitaciones físicas y/o psíquicas para realizar actividades de la vida diaria.

Hay un total de **1.805** plazas, de las cuales **1.543** son de financiación foral.

A 31-12 había **120** personas en lista de de espera, un 35% menos que en el año anterior.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **1.888** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **1.258** personas, un **73%** de mujeres.

La ocupación a 31-12 ha sido del **82%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,22**.

## 2.2.2.- ARRETA SOZIOSANITARIOA

Osasun-arazo larriengatik edo muga funtzionalengatik eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuagatik aldi berean osasun- eta gizarte-arreta, koordinatua eta egonkorra, arretaren jarraitutasun-printzipioari egokitua, behar duten pertsonentzako zainketa-multzoa hartzen du arreta soziosanitarioak.

Arlo soziosanitariotik bi esku-hartze ildotan arreta soziosanitario egokia antolatu ahal izateko lan egiten da. Alde batetik, eremu soziosanitarioaren garapenean, koordinaziorako eta baterako lanerako eremu gisa, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan, eta, bestetik, baliabide soziosanitarioen kudeaketan, bai artatutako biztanleek, bai haietarako irisgarritasunak eraginda.

### 2.2.2.A.- Koordinazio soziosanitarioaren garapena

Osasun Sailarekin eta Osakidetzarekin koordinazio soziosanitarioa garatzen ari gara, bai lurralde mailan, bai autonomia mailan.

#### 2.2.2.A.1.- Koordinazio autonomikoa

Autonomia-erkidegoan, Osasun Sailarekin eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin elkarlanean aritu gara, eta haiekin batera parte hartu dugu, bai eta Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoekin ere, "Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024" garatzen. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluak 2021.

## 2.2.2.- ATENCIÓN SOCIO SANITARIA

La atención Sociosanitaria comprende el conjunto de cuidados destinados a las personas que, por causa de graves problemas de salud o limitaciones funcionales y/o de riesgo de exclusión social, necesitan una atención sanitaria y social simultánea, coordinada y estable, ajustada al principio de continuidad de la atención.

Desde el área Sociosanitaria se trabaja para poder articular una atención sociosanitaria adecuada en dos líneas de intervención. Por un lado, en el desarrollo del espacio sociosanitario, como espacio de coordinación y trabajo conjunto tanto a nivel territorial como Autonómico y por otro en la gestión de recursos de carácter sociosanitario tanto por la población atendida como por el acceso a los mismos.

### 2.2.2.A.-Desarrollo de la coordinación sociosanitaria

Trabajamos en el desarrollo de la coordinación Sociosanitaria con el departamento de Salud y con Osakidetza tanto a nivel Territorial como a nivel Autonómico.

#### 2.2.2.A.1.-Coordinación Autonómica

A nivel Autonómico hemos colaborado y participado con el Departamento de Salud y Osakidetza Servicio Vasco de Salud, así como los Territorios Históricos de Bizkaia y Araba en el desarrollo de la "Estrategia de Atención Sociosanitaria de Euskadi 2021-2024", estrategia que ha sido aprobada por el Consejo Vasco de Atención

urtean onartu zuen estrategia hori.

Sociosanitaria durante el año 2021.

#### 2.2.2.A.2.- Lurralde Koordinazioa

#### 2.2.2.A.2.- Coordinación Territorial

Lurralde-koordinazioak garrantzi handia izan du COVID 19 pandemian, baina ohiko egitura eta foroetako batzuek beren jardura murriztu dute, baita horietan dugun parte-hartzea ere, COVIDen kudeaketaren ondorioz.

La Coordinación territorial ha tenido gran importancia durante la pandemia COVID 19, pero parte de las estructuras y foros habituales han disminuido su actividad y también nuestra participación en las mismas debido a la gestión de la COVID.

Lurralde Kontseilu soziosanitaria aktibo mantendu da, eta erakunde sanitario integratuetako batzorde soziosanitarioen jardura murriztu da.

Se han mantenido activo el Consejo Territorial Sociosanitario y ha disminuido la actividad de las Comisiones Sociosanitarias de las Organizaciones Sanitarias integradas.

2022. urtean koordinazio-jardura hori bultzatu ahal izatea espero dugu.

Esperamos poder potenciar esta actividad de coordinación durante el año 2022.

Kasuak kudeatzeko Ebaluazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordea astero mantendu da, modu presentzialean edo telematikoan.

La Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria de gestión de casos se ha mantenido de manera semanal, ya sea de manera presencia o telemática.

#### 2.2.2.B.- Baliabideen kudeaketa

#### 2.2.2.B.- Gestión de recursos

2021. urtean pandemiak irauteak Gizarte politiketako Saileko hainbat zerbitzuren jardura markatzen jarraitu du, arlo soziosanitarioko jardura barne. Zeregin eta erronka berriei aurre egin behar izan zaie, eta horrek, era berean, eragina izan du gure ohiko lan-edukian.

La persistencia de la pandemia durante el año 2021 ha seguido marcando la actividad de distintos servicios del Departamento de Políticas Sociales incluida la actividad del área sociosanitaria. Ha habido que hacer frente a nuevas tareas y retos, lo cual a su vez ha repercutido en nuestro contenido habitual de trabajo.

##### 2.2.2.B.1- COVIDen kudeaketa

##### 2.2.2.B.1- Gestión de la COVID

Bigarren urte honetan egindako COVID 19 pandemiari dagokionez, lan espezifikoko puntu garrantzitsuenen artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

Como puntos más importantes de trabajo específico en relación a la pandemia COVID 19 realizados durante este segundo año podríamos destacar los siguientes:

- Gizarte-arloko erreferentziako COVID zentroak abian jartzea eta mantentzea, pandemiaren bilakaerak hala eskatu dien neurrian:
  - COVID erreferentzia-zentroa Eibarren, 48 oherekin.
  - COVID erreferentzia-zentroa Arrasateko San Juan de Dios kalean, 19 oherekin.
  - COVID erreferentzia-zentroa Ordizian, 38 oherekin.
- COVID erabiltzaile positiboek lekualdaketak kudeatzea, foru-sareko baliabide-saretik, ospitaleetatik eta etxeetatik erreferentziako COVID zentroetara. 422 pertsona lekualdatu dira 2021ean.
- Atal soziosanitarioko teknikarien aholkularitza eta jarraipena, saileko beste teknikari batzuekin batera, adineko, ezintasuneko eta osasun mentaleko zentroetako COVID agerraldiei buruz, bai eta zentro horietako Covid arloak abian jartzei buruz ere.
- Departamentuko gainerakoekin koordinatzea, bai eta Osasun Sailarekin, epidemiologiarekin, osasun publikoarekin eta Osakidetzarekin eta pandemia kudeatzeko beste eragile batzuekin ere.
- Puesta en marcha y mantenimiento de centros COVID de referencia de carácter social en la medida en la que han sido requeridos por la evolución de la pandemia:
  - Centro de referencia COVID en Eibar de 48 camas.
  - Centro de referencia COVID en San Juan de Dios Arrasate de 19 camas.
  - Centro de referencia COVID en Ordizia de 38 camas.
- Gestión de los traslados de usuarios COVID positivos desde la red de recursos de la red Foral, hospitales y domicilios a los centros COVID de referencia. Han sido trasladados durante el año 2021, 422 personas.
- Asesoría y seguimiento desde el personal técnico de la sección Sociosanitaria junto con otros técnicos del departamento de los brotes de COVID en los centros de tercera edad, de discapacidad y salud mental, así como la puesta en marcha de las Áreas Covid en dichos centros.
- Coordinación con el resto del departamento, así como con el Departamento de Salud, epidemiología, salud pública y Osakidetza-Servicio Vasco de Salud, así como otros agentes para la gestión de la pandemia.

2.2.2.B.2.- Egoitza-zentro soziosanitarioak, SESB.

Egoitza soziosanitarioetan osasun eta gizarte arloko arreta handia eskaintzen zaie pertsoneri, aldi berekoa, koordinatua eta egonkorra

**148** plaza dira guztira eta guztiek finantzaketa publikoa dute. Hiru zentrotan banatuta daude: CruzRoja (Donostia), Argixao (Zumarraga) eta Eibar -Torrekua.

Eibarko egoitza-unitate soziosanitarioak 24 plazako bi unitate ditu.

**48** plazako SESB unitate horrek COVID erreferentziako zentro gisa funtzionatu du 2021. urtean, azaroaren 15etik abenduaren 10era bitarteko aldi izan ezik, aldi horretan profil soziosanitarioko 17 pertsona artatu baitziren.

Abenduan pandemiak gora egin zuenez, seigarren olatuan plaza guztiak birgaitu ziren COVID kasuetarako.

Egoitza-unitate soziosanitarioko plazen kudeaketari dagokionez, atal soziosanitariotik 333 kasu soziosanitario landu dira 2021ean. 233 eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera, eta 207 sarrera eragin ditu horrek.

Abenduaren 31n, **9** pertsona zeuden egoiza hauetarako itxaron zerrendan.

2.2.2.B.2.- Centros residenciales sociosanitarios, URSS.

Los centros residenciales sociosanitarios son centros destinados a personas que precisan una atención sanitaria y social intensa, simultánea, coordinada y estable.

El total de plazas es de **148**, todas ellas de financiación pública, repartidas en tres centros: CruzRoja (Donostia), Argixao (Zumarraga) y Eibar -Torrekua.

La unidad residencial sociosanitaria de Eibar, consta de dos unidades de 24 plazas cada una.

Esta unidad URSS de **48** plazas ha funcionado como centro de referencia COVID durante el año 2021 a excepción del periodo comprendido entre el 15 de noviembre y el 10 de diciembre en el que se atendieron 17 personas de perfil sociosanitario.

Ante el repunte de la pandemia en diciembre durante la sexta ola, se rehabilitaron todas las plazas para casos COVID.

En lo referente a gestión de plazas de unidad residencial Sociosanitaria URSS, Desde la sección Sociosanitaria durante el año 2021 se han trabajado 333 casos sociosanitarios. Han llegado a Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria 233 solicitudes y esto ha generado 207 ingresos.

A 31-12 había una lista de espera de **9** personas para acceder a residencias sociosanitarias.

2021ean zehar **281** pertsona artatu ziren.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **281** personas.

Abenduaren 31n **90** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%47** emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **90** personas, un **47%** mujeres.

Abenduaren 31n okupazioa **%90**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **2,81**koa izan da. Plaza horiek profil iraunkorreko eta psikogeriatrikoko plazek baino errotazio handiagoa dute, beren ezaugarriak direla eta (iraunkorrekoek, 1,18; eta psikogeriatrikokoek, 1,33).

La ocupación a 31-12 ha sido del **90%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) **2,81**. Este tipo de plazas, por sus características, presentan una rotación muy superior a las plazas de perfil permanente (1,18) o de unidades psicogeríatricas (1,33).

### 2.2.3.- DESGAITASUNA

#### 2.2.3.A.- Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroak

Desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroak, eguneroko beharrianak beren ohiko ingurunean bete ezin dituzten eta, hortaz, mendekotasun egoeran dauden pertsona desgaituei ohiko etxebizitza iraunkorra, edo aldi baterako bizilekua, ematera bideratutako bizikidetzak dira.

2021ean Olatzondo zentroa ireki da Azpeitian, autismoa duten pertsonen eta haien familiei erantzuteko Urola Kostako eskualdean: zentroaren kudeatzaile Gautenarekin (14 plaza) hitzartu dira.

Halaber, 9 plaza itundu dira Donostian, Berrizko egoitzan, eta 1 Zestoako Gisasola zentroan.

##### 2.2.3.A.1.-Etxebizitza laguntzekin

2021ean eskaintza **14** plazatan igo da. **404** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **44** pertsona zeuden zentro hauetarako itxaron zerrendan.

2021ean zehar **419** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n, **394** pertsonari ematen zitzairen arreta, horietatik %39 emakumeak.

Abenduaren 31n okupazioa **%97,5koa** zen, eta Gipuzkoako batez besteko errotazioa (urtean

### 2.2.3.- DISCAPACIDAD

#### 2.2.3.A.- Centros residenciales para personas con discapacidad

Los centros residenciales para personas con discapacidad son servicios de convivencia destinados a servir de vivienda habitual o permanente y en su caso, temporal, a personas con discapacidad y en situación de dependencia, que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su domicilio personal o familiar.

En 2021 se ha abierto en Azpeitia el centro Olatzondo, para dar respuesta a las personas con autismo y sus familias de la comarca de Urola Kosta: Se han concertado con Gautena, gestora del centro, 14 plazas.

Asimismo, se han concertado 9 plazas en Donostia, en la residencia Berriz y 1 en el centro Gisasola de Zestoa.

##### 2.2.3.A.1.- Viviendas con apoyos

En el año 2021 la oferta se ha incrementado en **14** plazas. Hay un total de **404** plazas de financiación foral.

A 31-12 había **44** personas en lista de espera para acceder a estos centros.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **419** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **394** personas, un 39% mujeres

La ocupación a 31-12 ha sido del **97,5%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas)

## Desgaitasuna/discapacidad

## 2021eko Memoria

artatutako pertsonak / plazen kop.) **1,04koa** izan da.

media de Gipuzkoa de **1,04**.

**2.2.3.A.2.- Egoitza zentroak****2.2.3.A.2.- Centros residenciales**

2021ean eskaintza **10** plazatan igo da. **510** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

En el año 2021 la oferta se ha incrementado en **10** plazas. Hay un total de **510** plazas de financiación foral.

Abenduaren 31n **86** pertsona zeuden itxaron zerrendan.

La lista de espera a 31-12 era de **86** personas.

2021ean zehar **532** pertsona artatu ziren.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **532** personas.

Abenduaren 31n, **497** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik **%40**, emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **497** personas, un **40%** mujeres.

Abenduaren 31n, okupazioa **%97**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **1,04**koa izan zen.

La ocupación a 31-12 ha sido del **97%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,04**.

**2.2.3.B.- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroa****2.2.3.B.- Centros de día para personas con discapacidad**

Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroak diziplina anitzeko talde profesional batek gauzatutako jardun sorta antolatu eta koordinatu baten bitartez, hartzaileen garapen personal eta soziala, autonomía eta gizarteratzea xede dituen arreta gaitzaile integrala eskaintzen dute.

Los centros de día para personas con discapacidad son centros que proporcionan una atención habilitadora integral orientada a facilitar el desarrollo personal y social, la autonomía y la integración social de personas con discapacidad. Esta atención es prestada por un equipo profesional multidisciplinar.

Eguneko 2 zentro berri ireki dira: bat Azpeitian, Olatzondon, autismoa duten pertsonen zuzendua eta Gautenak kudeatua; 16 plaza itundu dira zentro horrekin, eta bestea Pasaian, Goyenechek kudeatua, eta 11 plaza hitzartu dira harekin.

Se han abierto 2 nuevos centros de día, uno en Azpeitia, Olatzondo, dirigido a personas con autismo y gestionado por Gautena, con el que se han concertado 16 plazas y otro en Pasaia, gestionado por Goyeneche, con el que se han concertado 11 plazas.

2021ean eskaintza **28** plazatan igo da. **756**

En el año 2021 la oferta se ha incrementado en



## Desgaitasuna/discapacidad

2021eko Memoria

plaza daude foru finantzaketa dutenak.

**28** plazas. Hay un total de **756** plazas de financiación foral.

Abenduaren 31n, **65** pertsona zeuden zentro horietarako itxaron zerrendan.

A 31-12 había **65** personas en lista de espera para acceder a estos centros.

2021ean zehar **781** pertsona artatu ziren.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **781** personas.

Abenduaren 31n, **737** pertsonari ematen zitzaaien arreta, horietatik **%44** emakumeak.

A 31-12 se prestaba atención a **737** personas, un **44%** mujeres.

Abenduaren 31n okupazio maila **%97,5**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.), **1,03**koa izan zen.

La ocupación a 31-12 ha sido del **97,5%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,03**.

## 2.2.4.- GAIXOTASUN MENTALA

### 2.2.4.A.- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako egoitza zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako komunitate-ostatuko baliabideak arreta ematen dieten zentro eta zerbitzu soziosanitarioak dira, beren gaitasun eta trebetasun pertsonalak eta harremanetarakoak hobetzeko prestazioen bidez, pertsona horien garapen pertsonala, gizarteratzea eta inguruneko partaidetza sustatzeko eta oro har, beren bizi kalitatea hobetzeko.

2021ean **Zubietxe** zentroa ireki da Donostian, **12 plazakoa**, adimen-desgaitasuna eta/edo nahasmendu mental larria eta jokabide-nahasmendu arinak dituzten erabiltzaileentzat da. Zentro hori gazteei zuzenduta dago eta Aita Menni ospitale-anaiek kudeatzen dute.

Aita Menni Arrasateko ospitale-anaien asistentzia-esparruan, egoitza-izaerako **3 plaza** gaitu dira, Udigune zentroa, adimen-desgaitasuna eta/edo jokabide-nahaste larriak dituzten pertsonentzat, eta horien ezaugarria kronikotasunari erantzutea da.

COVIDen kudeaketari dagokionez, Aita Menni zentroan 2020an desgaitasun intelektualaren eta/edo gaixotasun mentalaren sareko pertsonen arreta emateko antolatutako 10 plazako unitatea itxi egin da, kontuan hartuta erreferentziazko gainerako COVID zentroek behar bezala erantzuten ziotela dagoen eskaerari.

**271** plaza daude eta **259** foru finantzaketa

## 2.2.4.- ENFERMEDAD MENTAL

### 2.2.4.A.- Centros residenciales para personas con enfermedad mental

Los recursos de alojamiento comunitario para personas con trastorno Mental Severo son centros o servicios de carácter socio-sanitario que atienden a personas con enfermedad mental crónica mediante prestaciones orientadas a mejorar sus capacidades y habilidades, personales y relacionales, con el fin de favorecer su desarrollo personal, su integración y participación en el entorno, y, en general, mejorar su calidad de vida.

En 2021 se ha abierto en Donostia el centro **Zubietxe**, con **12 plazas**, dirigido a personas usuarias con discapacidad intelectual y/o trastorno mental severo y trastornos leves de conducta. Este centro está orientado a personas jóvenes y es gestionado por las Hermanas Hospitalarias Aita Menni.

En el complejo asistencial de las Hermanas Hospitalarias de Aita Menni Arrasate se han habilitado a su vez **3 plazas** de carácter residencial, centro Udigune, para personas con discapacidad intelectual y/o trastorno mental severo con graves trastornos de conducta, cuya característica es atender la cronicidad.

En relación a la gestión de la COVID, la unidad de 10 plazas articulada durante el año 2020 en el centro Aita Menni para atender a personas de la red de discapacidad intelectual y/o enfermedad mental ha sido clausurada, considerando que el resto de centros COVID de referencia respondían de manera suficiente a la demanda existente.

Hay un total de **271** plazas, de las cuales **259**

dutena.

Atal soziosanitarioak egoitza baliabideetako 149 kasu soziosanitario landu ditu 2021. urtean. 55 eskaera iritsi dira Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera. 2021ean, guztira, 277 pertsona artatu dira.

#### **2.2.4.A.1.-Etxebizitza laguntzekin**

Buruko gaixotasuna duten pertsonentzako laguntza duten etxebizitzetan gizarteratze fasean dauden eta etengabe gainbegiratzea behar ez duten pertsonak artatzen dira, gizarteratzeko eta lanbideratzeko eta bizitza normalizatura itzultzeko beren ibilbidean, egunez, zerbitzutik kanpo eskaintzen zaizkien prestakuntza eta garapen pertsonaleko saioetan parte hartzen dutenak.

**111** plaza daude guztira eta **110** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **25** pertsona zeuden itxaron zerrendan.

2021ean zehar **125** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n, **106** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%40** emakumeak.

Abenduaren 31n, okupazioa **%96,4**koa zen, eta errotaioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **%1,14**koa izan zen.

son de financiación foral.

Desde la sección Sociosanitaria durante el año 2021 se han trabajado 149 casos sociosanitarios para alojamientos. Han llegado a Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria 55 solicitudes. El total de casos atendidos durante el año 2021 ha sido de 277 personas.

#### **2.2.4.A.1.- Viviendas con apoyos**

Las viviendas con apoyos para personas con enfermedad mental atienden a personas que no requieren supervisión continua, que se encuentran en proceso de inclusión y que, en el marco de su itinerario personalizado orientado a su inclusión social y laboral, y a su vuelta a una vida normalizada, participan, durante el día, en actividades formativas y de desarrollo personal que se ofrecen fuera del servicio.

Hay un total de **111** de plazas de las cuales **110** son de financiación foral.

A 31-12 había **25** personas en lista de espera.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **125** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **106** personas, un **40%** mujeres.

A 31-12 la ocupación ha sido del **96,4%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,14%**.

**2.2.4.A.2.- Buruko nahasmendu larria duten pertsonentzako egoitza-unitateak**

Buru Nahasmendu Larria duten pertsonentzako egoitza-unitateak errehabilitazio-unitateak dira, laguntza mugatu zabala (kanpoko eguneko jardueretara joaten dira) eta laguntza orokorra (zentroan bertan eguneko jarduerak egiten dituzte) behar duten pertsonak artatzen dituztenak.

**160** plaza daude guztira eta **149** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **51** pertsona zeuden buruko nahasmenduak dituzten pertsonentzako zentroetarako itxaron zerrendan.

2021ean zehar **152** pertsona artatu ziren.

Abenduaren 31n, **140** pertsonari ematen zitzaien arreta, horietatik **%24** emakumeak.

Abenduaren 31n, okupazioa **%93,97**koa zen, eta errotazioa (urtean artatutako pertsonak / plazen kop.) **%1,08**koa izan zen.

**2.2.4.A.2.- Unidades residenciales para personas con trastorno mental severo-URTMS**

Las Unidades residenciales para personas con Trastorno Mental Severo, son unidades con carácter rehabilitador que atienden a personas que requieren apoyo limitado extenso (acuden a actividades diurnas en el exterior) y apoyo generalizado (realizan actividades diurnas en el propio centro).

Hay un total de **160** de plazas de las cuales **149** son de financiación foral.

A 31-12 había **51** personas en lista de espera para acceder a residencias para personas con trastorno mental.

A lo largo de 2021 se ha atendido a **152** personas.

A 31-12 se prestaba atención a **140** personas, un **24%** mujeres.

A 31-12 la ocupación ha sido del **93,96%** y la rotación (personas atendidas año/núm. plazas) de **1,08%**.

### 2.2.4.B.- Buru-nahaste larria duten errehabilitazio psikosozialeko zentroak

Buru-nahaste larria duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko zentroetan, diziplina anitzeko talde batek garatutako jarduketa antolatu eta koordinatuen bidez, arreta integrala ematen da, ahal den neurrian garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta gizarteratzea lortzera bideratua.

**250** plaza daude guztira eta **234** plaza daude foru finantzaketa dutenak.

Abenduaren 31n, **12** pertsona zeuden gaixotasun mentalak dituzten pertsonentzako eguneko zentroetarako itxaron zerrendan, 2020an baino %43 gutxiago.

Atal soziosanitarioak 86 eguneko jarduera-kasu landu ditu. Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioko Batzordera errehabilitazio psikosozialeko eguneko jardueraren 55 eskaera iritsi dira.

2021ean zehar **266** pertsona artatu ziren.

